

mamuez :



barrenet 13. ikastunitatea

2. maila

irakaslearena

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak..... 3
 2. Ikastunitatearen ibilbidea 4
 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak..... 5

2. ATAZAK

- A ataza:** Psikofonia edo airean dauden ahots misteriotsoak 7
B ataza: Mamurik ba ote dago? 11
C ataza: Trebiñoko herri madarikatua 18
D ataza: Otxateri buruzko ipuinak 21
E ataza: Goazen Otxatera!..... 24

3. MATERIAL OSAGARRIA

- F ataza:** Ouija 27

4. ERANSKINAK

- I. eranskina: Ikasleen autoebaluazio-orria 29
 II. eranskina: "Psikofonia edo airean dauden ahots misteriotsoak" erreportajea 30
 III. eranskina: "Psikofonia edo..." testua, tarteko izenburuak kenduta..... 32
 IV. eranskina: X espedienteak, 1.bideo-pasartearen transkripzioa 34
 V. eranskina: X espedienteak, 2.bideo-pasartearen transkripzioa 35
 VI. eranskina: X espedienteak, 3.bideo-pasartearen transkripzioa 36
 VII. eranskina: X espedienteak, 4.bideo-pasartearen transkripzioa 37
 VIII. eranskina: X espedienteak, 5.bideo-pasartearen transkripzioa 38
 IX. eranskina: X espedienteak, 6.bideo-pasartearen transkripzioa 39
 X. eranskina: X espedienteak, 7.bideo-pasartearen transkripzioa 40
 XI. eranskina: Gertaera-fitxak..... 41
 XII. eranskina: X espedienteak, 8.bideo-pasartearen transkripzioa 42
 XIII. eranskina: 'Otxaten gau bat' komikia 43
 XIV. eranskina: 'Otxaten gau bat' ipuina..... 45
 XV. eranskina: 'Goazen Otxatera!', 9.bideo-pasartearen transkripzioa 46
 XVI. eranskina: X espedienteak, 10. bideo-pasartearen transkripzioa 47

BIDEO-PASARTEAK				
A ataza	B ataza	C ataza	D ataza	E ataza
	1bp: 00.00.39 2bp: 00.01.15 3bp: 00.05.11 4bp: 00.08.16 5bp: 00.12.12 6bp: 00.14.20 7bp: 00.17.02	8b-p: 00.19.15	9b-p: 00.22.10	10b-p: 00.26.33 11b-p 00.27.48

OHARRA: denbora horiek erreferentziakoak dira.

1. Sarrera

Bakarrik al gaude mundu honetan? Edo mamuz, izpirituz... inguratuta bizi al gara? Ziur al zaude hortxe bertan, orrialde hau irakurtzen ari zaren toki horretan ez dagoela mamurik? Beharbada, ez duzu ezer berezirik ikusiko, baina bobina infragorri batez argazki bat egingo bazenu...

Ikastunitate honetan, gai horietaz hitz egingo dugu, eta ikasleek kontu horien gainean duten iritzia azaldu beharko dute. Horrez gain, ipuinak idazteko edota artikulatu batetik informazioa ateratzeko aukera ere izango dute.

Argazki eta soinu misteriotsu batzuk ere ikusi eta entzungo ditugu, eta horien gaineko hipotesiak sortu beharko dituzte ikasleek, hori guztia bideo-erreportaje batean oinarrituta. Azkenik, bitxikeriek ere bere lekutxoak izango dute, baten batek zer kontatua baldin badu, behintzat. Hori bai, zuen bihotzek ez baldin badute emozio gogorrik jasaten, zuek ikusi zer egin!

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Mamuak, izpirituak, psikofoniak	Kontu ulertezin edo paranormalak izango dira ataza hauetako haria. Bideo-pasarte zein erreportaje idatzi batzuetan gai horiei buruzko datuak ezagutuko ditugu, gero Otxate herrian izandako gertaeretan pixka bat sakontzeko.
Hipotesiak	Arazoen, argazkien edota soinuen interpretazioek garrantzi handia izango dute ikastunitate honetan. Horrez gain, argazkien deskripzioak ere landuko ditugu; izan ere, irudietan dagoena zer izan daitekeen adierazteaz aparte, ikusten dutena deskribatzen ere jardungo baitute.
Ipuinak	Ikasle batek idatzitako ipuin bat ere aztergai izango dugu. Arrasto batzuk eman ondoren, gure ikasleek kontu horien gaineko ipuinen bat idatziko dute, eta, nahi izanez gero, euskaltegian ipuin-lehiaketa bat antolatuko.
Ziurtasun-maila	Mamuen existentzia ez da sinesgarria guretzat guztiontzat. Hori dela eta, entzun edota irakurriko ditugun testuetan hainbat ziurtasun-maila daudela ikusiko dugu. Horrela, adituek oso edo nahiko ziur emango dizkigute azalpenak; besteek, ordea (adibidez, Sorginen Laratzeko aurkezleek), ziurtasun handirik gabe.
Estrategiak	Estrategiei dagokienez, alde batetik, aurreko ezagutzak eta aurreikuspenak egiteak izugarritzko garrantzia izango du, bideo-erreportajeak ulertzeko. Bestalde, ipuinak irakurtzeko zein idazteko estrategiez arituko gara.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- ❑ Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoen aurkezpena

(6. or. ik. lib.) (3. or. irak. lib.)

A. PSIKOFONIA EDO AIREAN DAUDEN AHOTS MISTERIOTSUAK

- ❑ Psikofonia hitzari buruzko definizioak asmatu, eta artikulatu batean dagoenarekin konparatu
- ❑ Psikofoniei buruzko artikuluan tarteko izenburuak kokatu
- ❑ Artikulutik ideia garrantzitsuenak atera, eta elkarri kontatu (erdi bana)
- ❑ Testuan ziurtasun-maila aztertu
- ❑ Argudiatzeko baliabideak aztertu
- ❑ Testuan esandakoen gaineko argudioak garatu, eta besteei azaldu
- ❑ Azken paragrafoaren antzeko bat sortu

(8. or. ik. lib.) (7. or. irak. lib.)

IRAK. / MINTZ.

B. MAMURIK BA OTE DAGO?

- ❑ Galdera baten erantzuna aurreikusi / hipotesia baieztatu
- ❑ Bideo-erreportajea ikusi, eta galderei erantzun / mamuen argazkiak deskribatu, eta bideoan egiten den deskripzioarekin konparatu
- ❑ Hipotesiak egiteko esakuneak aztertu
- ❑ Zarata bat interpretatu / hipotesiak baieztatu
- ❑ Bideoan kontatu diguten gertaera bi zatitan eman, eta elkarri kontatu
- ❑ Ziurtasun-maila aztertu, eta praktikan jarri, berri motzak kontatuz
- ❑ -(e)la partikularen erabilera aztertu
- ❑ Adierazpen batzuei buruzko iritzia eman

(15. or. ik. lib.) (11. or. irak. lib.)

ENTZ. / MINTZ.

OSAGARRIA

F. OUIJA

- ❑ Bideoa ikusi aurretik gaiari buruz dauzkaten datuak bildu
- ❑ Bideo-erreportajea
- ❑ ikusi, eta aurrekoa egiteak lagundu dien ala ez esan

(42. or. ik. lib.) (27. or. irak. lib.)

C. TREBIÑOKO HERRI MADARIKATUA

- ❑ Otxateri buruzko aurreko ezagutza gogora ekarri
- ❑ Bideo-erreportajea ikusi, eta galdera bana pentsatu, ondokoari egiteko
- ❑ Zenbait ziurtasun-maila kontuan hartuta, berri motzak idatzi
- ❑ Egoera eman, eta gertakariak besteei kontatu
- ❑ Denborazkoak transkripzioan azpimarratu / hutsuneak bete
- ❑ Entzundako gertaera paranormalei azalpena eman

(24. or. ik. lib.) (18. or. irak. lib.)

ENTZ. / MINTZ.

IKASLEEN

AUTOEBALUAZIO-ORRIA

(44. or. ik. lib.) (29. or. irak. lib.)

E. GOAZEN OTXATERA!

- ❑ Testua irakurri, Otxateko bidea markatu mapa batean
- ❑ Elkarrizketa entzun, eta galderei erantzun
- ❑ Ikasgelako norbaiti zerbait egitea proposatu
- ❑ Lotura logikoak eta esakuneak zerrendatu, eta elkarrizketan agertzen direnak azpimarratu
- ❑ Izenordain mugagabeak landu
- ❑ Otxatera joateko plana eztabaidatu

(38. or. ik. lib.) (24. or. irak. lib.)

ENTZ. / MINTZ.

D. OTXATERI BURUZKO IPUINAK

- ❑ Irakurri behar duten ipuinaren izenburua asmatu
- ❑ Irakurri aurretik komikia ordenatu
- ❑ Ipuina irakurri, komikiaren ordena egiaztatzeko
- ❑ Ideiak testuan azpimarratu
- ❑ Lokailuak bere lekuan kokatu, eta erreferenteak aztertu
- ❑ Ipuina idazteko, asmatu izenburua, hasierako formulak eta bukaerakoak
- ❑ Izenburua aukeratu, eta ideiak bildu
- ❑ Ipuina idatzi
- ❑ Ipuinen balorazioak egin, galderei erantzunez
- ❑ Ipuin-lehiaketa antolatu

(33. or. ik. lib.) (21. or. irak. lib.)

IRAK / IDA7

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

LEXIKOIA

- **Mundu esoterikoa:** psikofonia, parapsikologia, bobina edo karrete infragorria, ouija taula, gertaera ulertezinak edo paranormalak, poltergeist (iratxoa)
- **Gertaera ulertezinak edo paranormalak:** ahots misterioitsuak, izpiritua, arima, dimentsioa, grabazioa, bitxikeriak, ahotsa, soinua, kasu harrigarria, mamua, fantasma, benetakoa, istorioa, beldurra, izakiak, susmagarria, itzala, giza forma, itxura, sumatu, susmoa, ikerlaria, subkontzientea, sinesgarria, sinesgaitza, giza adimena, esperientzia, arriskua, arriskutsua, sinesmena, madarikatua, errespetua, errealitatea, txorakeria, aditua
- **Heriotza:** bizitza, hildakoa, heriotza, eliza, kanposantua, hilerrria, isiltasuna, garezurra, burezurra, hilobia, hilarria
- **Aditzak:** sinetsi, ondorioztatu, frogatu, ulertu, agertu, amets egin, iruditu, harremanetan jarri

MINTZAGAIAK

- Mamuen argazkiak
- Psikofoniak
- Istorio paranormalak
- Heriotza
- Sineskeriak

ELKARRERAGINA

- Iritzi bati buruzko argudioak azaltzea (A)
- Irakurritakoa beste bati kontatzea (A)
- Argazki bat ahoz deskribatzea (B)
- Hipotesiak egitea (B)
- Beste batzuei gertatutakoa kontatzea (B, C)
- Gai baten gainean iritzia ematea (A)
- Gaiaren gaineko ipuinak idaztea (D)
- Elkarrizketa batean proposamenak egitea eta arrazoitzea (E)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Irakurri aurreko iragarpenak egitea: aurreko ezagutza (A, D)
- Lehenbizi, gaia orokorrean ulertzea, eta, gero, xehetasunetara jotzea (A)
- Helburu jakin baterako informazio garrantzizkoa aurkitzea (A, E)
- Mintzaldia prestatzeko euskarri idatziak erabiltzea (A)
- Berbaldiaren mezua norberaren aurreko ezagutzarekin lotzea (B)
- Gai baten gainean entzundako informazio berezia ateratzea (B)
- Ahozko testu baten informazio orokorra ulertzea, gaiaren eta hizlariaren asmoaz ezagutzen dena kontuan izanik, entzungo dena igarriz (B)
- Ahozko testu baten esanahi orokorra ulertzea, entzundako gertaeretatik kausa-ondorioak atereaz (C)
- Testuko informazioa jasotzea, ikonoez baliatuz (D)
- Testua idazteko ideiak biltzea, besteekin ideiak trukatzuz (D)
- Idatzitako ipuina berrikustea, adierazitako ideien egokitasunari eta formen zuzentasunari erreparatuz (D)
- Esaldi- edo diskurtso-mailako testuinguruaz baliatzea, hitz ezezagunen esanahia asmatzeko (D)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Ziurtasun-maila (A, B, C)
- Lokailuak (A, D, E)
- Iritzia emateko esakuneak / aditzak (A)
- Espazio-nozioak (B)
- Modua (B)
- Hipotesiak egiteko esakuneak (B)
- Denborazkoak (C)
- Proposamenak egiteko esakuneak (E)
- Ezetza emateko esakuneak (E)
- Izenordain mugagabeak (E)

2. Atazak

A ATAZA: PSIKOFONIA, EDO AIREAN DAUDEN AHOTS MISTERIOTSUAK (105´)

Helburuak:

- Gaia aurkeztea eta girotzea
- Aldizkari batean argitaratutako erreportaje batetik informazioa ateratzea
- Testu idatziak ulertzeko estrategiak garatzea
- Ziurtasun eza adierazteko hizkuntz baliabideak aztertzea / lantzea
- Argudiatzea

Zertan den:

Aizu! aldizkarian argitaratutako erreportajea izango da ardatza. Bertan, psikofoniak, izpirituak, arimak, eta abarrekoak zer diren, nondik datozen, nola sortzen diren... azaltzen da. Alde batetik, ikasleek testua irakurri eta bertatik informazioa aterako dute. Bestetik, gai horren gainean duten iritzia ere eman ahal izango dute, argudioak prestatu eta hitzalditxo bat osatuz.

PROZEDURA:

Atazaurrea: (5´)

- Hasteko, hirusak jarri, eta "psikofonia" hitzaren definizioak asmatu.
- Ondoren, erreportajearen lehenengo lerroaldea irakurri, eta gehien hurbildu den definizioa zein den esango dute.

Psikofonia edo airean dauden ahots misterioitsuak*

Inguratzen gaituen airean ohiko kutsadura eta zarata ez ezik, zerbait gehiago ere ba omen dago; psikofoniak, esate baterako. Ahots ezezagunak eta ulergaitzak, nondik datozen ere ez dakigunak; horra hor psikofoniak. Bide batez, esan dezagun beraien inguruan aritzen den zientziari ere psikofonia deitzen zaiola. Hala ere, psikofoniak egitea edonoren esku omen dago, edonork grabatu omen ditzake, baita geroago deszifratzen saiatu ere.

*Lehenengo lerroaldea
{* Osorik [2.eranskinean](#)}

Ataza: erreportajea gaineratik irakurri, tarteko izenburuak bere lekuan kokatuz (10´)

- Testua banatuko diegu, tarteko izenburuak dagokien lekuan koka ditzaten. Erreportajea, tarteko izenburuak kenduta, [3. eranskinean](#) duzue.

TARTEKO IZENBURUAK	
	Pakete kuantiko mugikorra
	Euskarazko hitzak Bartzelonan
	Nondik datoz ahots horiek?
	Ahots berbera hil ostean ere
	Ardo botilaren adibidea
	Psikofoniaren bidez etorkizuna ezagutu
	Izpiritua eta arima ez dira gauza bera

Feedbacka: (10´)

- Hirunaka jarri, eta bakoitzak ariketa nola egin duen azalduko die besteei. Alderik edota zalantzarik balego, denon artean hitz egin.

<ul style="list-style-type: none"> - Laburtu bakoitzak ulertu duena, orokorrean geratu zaizuen ideia. - Erreportajea idatzi duenak sinesten al du idatzi duen guztia? Zer uste duzu eta zergatik? - Uste al duzu erreportajeak psikofonieiei buruz zerbait argitzen duela? Zergatik? -
--

Ataza: testu-zati bateko ideia garrantzitsuenak atera, eta ikaskide bati irakurritakoa kontatu (20´)

- Bi taldetan jarriko dira. Talde bakoitzari testu-erdia eman irakurtzeko. Hona hemen, testua banatzeko proposamena.

1. TESTU-ZATIA	2. TESTU-ZATIA
<ul style="list-style-type: none"> - Nondik datoz ahots horiek? - Izpiritua eta arima ez dira gauza bera - Ardo botilaren adibidea - Pakete kuantiko mugikorra 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahots berbera hil ostean ere - Psikofoniaren bidez etorkizuna ezagutu - Euskarazko hitzak Bartzelonan

- Ideia garrantzitsuenak bereiziko dituzte, eta, gero, besteei kontatzeko modua zein izan daitekeen erabakiko dute: zer kontatu eta nola. Kontatzekoa prest dutenean, lehenbizi irakaslearekin zuzenduko dute.
- Oraindik bakoitza bere taldean dagoela, testu-zati horri dagozkion bosna galdera ere prestatuko dituzte.
- Binaka jarri, talde bakoitzeko bana, eta prestatutakoa kontatu. Ondoren, berriro elkartuko dira hasierako taldeetan, eta prestatutako galderak elkarri egingo dizkiote, denon artean erantzuteko. Zalantzak denon artean argitu.

Gramatika eta diskurtsoa: testuan ziurtasun-maila aztertu (15´)

- Testuari ziurtasun eza ematen dioten formak azpimarratuko ditugu. Gero, berridazketak egingo ditugu ikaslearen liburuan horretarako duten testuan.

BESTE MODU BATEAN IDATZI
1.- ... ba omen dago. / Antza denez,
2.- ... omen dago. / Badirudi ... -(e)la.
3.- ... badirudi ... egin daitezkeela. / ... omen... .
4.- ... adituen ustez, / ... -en arabera,
5.- Teoria honen arabera, / ... diotenez,
6.- Dirudienez, / Antza, ...
7.- ..., antza denez, / ..., dirudienez,
8.- ... suertatzen bide da. / ... omen... .
9.- ... ahots berbera ei da. / ... bide
10.- ...; diotenez, / ... -en arabera,

Gramatika eta diskurtsoa: argudiatzeko baliabideak aztertu (15´)

- Argudiatzeko baliagarri diren lokailu-, esakune- zein aditz-zerrenda bat izango dute, argudioekin zerikusirik ez duten hiru hitzekin nahastuta. Hiru hitz horiek zeintzuk diren esan beharko dute, hironaka.

<input type="checkbox"/> iritzi	<input type="checkbox"/> gainera	<input type="checkbox"/> barre egin
<input type="checkbox"/> bait-	<input type="checkbox"/> esan	<input type="checkbox"/> zera pentsatzen dut...
<input type="checkbox"/> horregatik	<input type="checkbox"/> dena den	<input type="checkbox"/> adibidez
<input type="checkbox"/> bat nator ...-rekin	<input type="checkbox"/> sukaldaritza	<input type="checkbox"/> horrez gain
<input type="checkbox"/> landareak	<input type="checkbox"/> beraz	<input type="checkbox"/> erantzun
<input type="checkbox"/> nire ustez	<input type="checkbox"/> egia da...	<input type="checkbox"/> uste
<input type="checkbox"/> hau dela eta	<input type="checkbox"/> horren ondorioz...	<input type="checkbox"/> hala ere
<input type="checkbox"/> esate baterako	<input type="checkbox"/> -(e)lako	
<input type="checkbox"/> ez dugu ahaztu behar...	<input type="checkbox"/> nire ustean	

Zuzenketa-orria:

Baztertu beharreko hitzak: **landareak, sukaldaritza, barre egin**

- Azkenik, egoera bat emango diegu haiek alde bateko edo besteko argudioren bat presta dezaten, goiko baliabideak edo beste batzuk erabiliz. Binaka jarri.

EGOERA:

Euskaltegian zerbait harrigarria gertatu zen aurreko astean. Antza denez, irakasle bat bakarrik geratu zen gaueko 10:00etan pasilloa garbitzeko asmoz, eta, halako batean, zarata batzuk entzun zituen gela batean. Gelan ez zen argirik ikusten. Bertan sartu, argia piztu, eta plater bat ikusi zuen bere aurpegiaren aurrean, baten batek bota izan balio bezala. Burua makurtu, eta platera atearen markoan apurtu zen. Guztiz beldurtuta geratu zen irakaslea, han ez baitzegoen inor eta ez baitzegoen leihorik, handik inor ateratzeko. Hurrengo egunean gertaera kontatu, eta berehala egin zituzten bi talde: han mamuren bat dagoela pentsatzen dutenak alde batetik, eta beste azalpen baten bila dabiltzanak bestetik (txantxa bat izan zela, edo irakaslea erdi-lo zegoela...). Eta zuek zein aldetan jarriko zarete?

Ataza: testuan esandakoen gaineko argudioak garatu, eta besteei azaldu (20´)

- Bi talde egingo ditugu: alde batetik, "Psikofonia edo airean dauden ahots misterioitsuak" izeneko erreportajea sinesgarria dela pentsatzen dutenak eta, beste alde batetik, sinestezina edo sinesgaitza dela pentsatzen dutenak. Talde bakoitzari bere iritzia defendatzeko baliagarri izan daitezkeen argudioak eskainiko dizkiogu; horretarako, jo dezatela ikaslearen liburuko 1. eranskinera.

ARGUDIO-FITXAK (1. taldea)

Onartu behar dugu airean, benetan, egon badaudela ahots ezezagunak, frogatuta geratu baita grabazioen bitartez. Nola azaldu ahots horien jatorria? Pakete kuantikoaren ideia erantzun bat izan daiteke.	Premonizioarena oso garrantzitsua da. Ezin dira ahaztu erreportajearen bertan ematen diren adibideak: Abraham, Moises	Beste kasu garrantzitsu bat Nostradamusena izan daiteke, bere liburuetan etorkizunean gertatu behar zena idatzi baitzuen eta baita askotan asmatu ere.
Edozein tokitan dago zerbait harrigarria gertatu den etxeren bat, edo mendiren bat, edo herriren bat. Herri guztietan kontaktzen dute, leku horietara joanez gero, ahotsak entzun eta gauza izugarriak ikus ditzakezula. Ez al da izango bertan zerbait bortitza-edo gertatu eta pakete kuantikoa oraindik ez delako heriotzaz jabetu? Zergatik ez?	Gauza bat da hipotesiak egitea eta horiek sinestea, eta beste bat hipotesi horiek frogatzea. Fonogramaren frogatze horrekin begibistan geratzen da berbera dela, zalantzarik gabe, bizitzan dugun ahotsa eta pakete kuantikoak —edo arimak (nahi bezala)— sortzen duena.	Hilzorian egon, eta, azkenean, guztiz sendotu den jendeak ere askotan kontatu izan du hil ala biziko uneren batean gorputzetik kanpo atera direla eta dena goitik ikusi. Hori bat dator beste kontu honekin: heriotzaren momentuan indar berezia askatzen dugun horrekin, hain zuzen ere; nahiz eta kasu horietan, azkenean, gorputzean sartzea lortu.

ARGUDIO-FITXAK (2. taldea)

Grabazioetako ahotsak momentu horretan baten bat sortzen ari den soinu-multzoa izan daitezke, airean dauden korranteetatik kasetera ailegatu direnak.	Pakete kuantikoaren kontu guztia ezin da frogatu, hipotesi-multzo bat baino ez da. Parapsikologoei eta asmatutako beste kontu bat da, inongo zentzu zientifikorik ez duena.	Heriotzaren osteko kontu guztiek erlijioekin zerikusi zuzena dute. Badaude beste teoria batzuk, ordea, heriotzaren ostean ezer ez dagoela esaten dutenak. Agian, horiek dira zuzenenak, ez baita ezer dagoenik frogatu.
Erljioarekin lotuta aipatzen diren adibideak ez dira baliagarriak, Jaungoikoaren ahotsa entzutearen kontua haien ideiak defendatzearekin lotuta baitzegoen. Auskalo, gainera, benetan gertatutakoak edo jendeak asmatutakoak diren!	Egia da askotan entzun izan dela borroka bortitz edo hilketaren bat egon den lekuan ahotsak entzun eta mamuak ikus daitezkeela. Baina ez al da izango munduan zehar zabaldutako kondairaren bat? Horrelako kontuak kultura guztietan zabalduta daude. Interesgarria izango litzateke oporretan horrelako leku batera joatea...	Gure pakete kuantikoa osatzen duten partikulak etorkizunera bidaltzearena guztiz sinestezina da. Premonizioaren kontu horiek kasualitateari zor zaizkio. Nostradamusen kasua aipatzen da beti, baina berak idatzitakoari milaka interpretazio egiten ahal zaizkio, zuk nahi duzuna atera arte.

- Argudioen zerrrenda osatu ondoren, banatu egingo dituzte, taldeko kide bakoitzak bat, bi edo nahi beste hartu eta azaltzeko moduan prestatuz. Besteen aurrean egin aurretik, irakaslearekin zuzenduko dute prestatutako jarduna.
- Denak batu (asko izanez gero, bi talde egin), eta bakoitzak prestatutakoa azaldu. Denen iritziak entzun ondoren, denon artean eztabaidatu.

Atazaostea: azken paragrafoaren antzeko bat sortu (10´)

- Binaka jarrita, testuaren azken paragrafoa hartu, eta horren antzeko bat idatziko dute: zer egin behar da mamuak ikusi ahal izateko?, edo zer egin behar da psikofoniak grabatu ondoren entzuteko?, edo gaiarekin zerikusia duen beste edozein gauza egiteko aholkuak eta instrukzioak eman idatziz, azken paragrafo horretan egiten den moduan.

AZKEN PARAGRAFOA

Amaitzeko, berriro ere lehen esandakoa gogoratu nahi dugu; hots, edonoren esku dagoela psikofoniak grabatzea. Horretarako, honako tresna hauek behar ditugu: ahalik eta kaseterik onena eta erabili gabeko zinta. Azken hau garrantzitsua da, zeren eta, zinta aurreko batean erabili bada, gerta baitaiteke alde aurretik grabatutakoa eta psikofoniakoa elkarrekin nahastea. Lekuak ere aproposa izan behar du; onenak eliza zaharrak eta, batez ere, kanposantuak izaten dira bi arrazoigatik: bata, isiltasun handia egon ohi delako horrelako tokietan; bestea, hildakoek askatu duten pakete kuantikoa inon baino gertuago dagoelako eta, beraz, leku errazena baita ahots misterioitsu horiek grabatzeko. Gainera, kanposantu handiak badira, edota bertan jendea ehorzten jarraitzen bada, pakete kuantikoen kopurua handia izango da, ezinbestean.

ANTZEKO TESTU BAT EGITEKO EREDUA

_____ edonoren esku dago _____ -tzea. Horretarako, honako tresna hauek behar ditugu: _____ eta _____. Azken hau garrantzitsua da, zeren eta, _____, _____. Lekuak ere _____ izan behar du; onenak _____ eta, batez ere, _____ izaten dira bi arrazoigatik: bata, _____ egon ohi delako horrelako tokietan; bestea, _____ eta, beraz, leku errazena _____ -tzeko. Gainera, _____ badira, edota _____ jarraitzen bada, _____, _____, _____ ezinbestean.

Helburuak:

- Bideo-erreportaje batean egiten diren deskripzioak, ematen diren azalpenak eta kontatzen diren gertaerak ulertzea.
- Argazkien deskripzioak ahoz egitea.
- Hipotesiak egitea.
- Iritziak ematea.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak garatzea: aurreikuspenak, aurreko ezagutza.
- Ziurtasun-maila lantzea.
- Denborazkoak lantzea.

Zertan den:

Lehenengo, bideo-erreportaje baten zati bat ikusi, eta bertan erakusten diren argazki batzuk deskribatu eta interpretatuko ditugu, mamurik ikusten dugun ala ez esanez.

Bigarrenik, beste zati batean mamu baten ahotsa entzun, eta hori ere interpretatu egingo dugu, hipotesiak eginez. Gero, gertaeraren prozesua aztertu, eta kontatzen trebatuko gara. Bukatzeko, bideoan agertzen diren adierazpenak aztertu, eta horien gaineko iritziak emango ditugu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: (10´)

- Hasteko, egoera aurkeztu: Sorginen Laratzean X espedientei buruzko erreportajeak ematen zituzten asteazkeneko (2000. urteko urrian hasita). Bertan Maider Egüesek gai "paranormal"en bat aurkeztu eta horren gorabeherak kontatzen ditu, Xabier Euzkitze berarekin duela. Oraingo honetan, mamuei eta psikofoniei buruz arituko zaigu. Gai honetan aditu bat elkarrizketatu zuen, eta horren iritziak entzun ahal izango ditugu bideoan.
- Bideoaren hasieran, Maider Egüesek honako hau galdetzen dio Euzkitzeri: **"Zuk inoiz, Xabier, ikusi al duzu mamu bat?"**. Erantzuna jakin aurretik, taldeka, ondorengo hiru erantzunen artean zein den Euzkitzek emandakoa erabaki beharko dute, eta aukeraketaren arrazoiak eman.

1.	2.	3.
"Ba... egia esan, gaztetan; <i>espiritismoa</i> egitera joan ginen etxe zahar batera, eta bai, han mamu bat ikusi genuen; oso beldurgarria, gainera. Baina inork ez digu sinesten kontatzen dugunean, eta, agian, hobe da horrela izatea".	" Nik txikitari amets egiten nuen mamuekin. Eta oso gaizki pasatzen nuen, gainera. Pentsa, amaren ondoan sartu behar izaten nuen ohean... Baina ez, ikusi, ikusi... —dakidala, behintzat—, ez dut mamurik ikusi".	" Behin batean, pentsatu nuen mamu bat ikusi nuela, baina... uste dut amesgaizto baten ondorio zuzena izan zela; ez dakit... Hori bai, ikusi ez dakit ikusi dudana, baina entzun bai; baserrian mamuek zarata izugarriak ateratzen dituzte".

- 1. bideo-pasarteak ikusi (4. eranskina), eta egindako hipotesiak baieztatu.
- "Eta zuk inoiz ikusi al duzu mamuren bat?" galderari labur-labur erantzun.

Ataza: bideoa ikusi, eta galderei erantzun; ondoren, argazkiak deskribatu, eta bideoan egiten den deskripzioarekin konparatu (20´)

- **2. bideo-pasarte**a ikusiko dute (**5. eranskina**), eta emandako galderak izango dituzte hizketa-gai.

- ✍ Zerk harritu zaitu gehien? Zergatik?
- ✍ Bideoan esaten denaren arabera, zer gertatzen da norbaitek mamu bat ikusi duela esaten duenean?
- ✍ Mamuak ikusi edo haiekin hitz egin izan duen jendeak lagunei-eta kontaktzen al die gertatutakoa?
- ✍ Zer esan dute: fantasmek kalte egiten dutela, ala ez dutela egiten?
- ✍ Zertarako dira negatibo infragorriak?
- ✍ Zein da fantasmak harrapatzeko tokirik aproposena?
- ✍ Nor da Carlos Gil?
- ✍ Zertara joan zen Carlos Gil Polloeko hilerrira? Zer lortu zuen?

- Zuzentzeko, bideoa berriro ikusi, eta, zalantzak egonez gero, argitu.
- Erreportajearen **3. eta 4. bideo-pasartean** aurkezten diren bi argazkiak hartu (**Transkripzioak 6.-7. eranskinetan**), eta bi talde egingo ditugu: batzuei hirugarrenean aurkezten den argazkia eman eta besteei laugarrenean aurkezten dena —horiek Maiderrek egiten duen sarreratxoa izango dute irakurtzeko, laguntza moduan—. Taldeotan argazkion deskripzioa egingo dute.

MAIDERREN SARRERATXOA

“Beno, hori da lehenengo argazki misteriotsua, baina badago bigarren bat. Bigarren argazki hau ere Polloen egin zuen Carlosek, lehenengo argazkia egin zuen tokitik metro batzuetara, beste zonalde batean, eta esan behar da bigarren espektro edo mamu hau zegoen tokitik bera zegoen tokiraino, hau da, Carlos zegoen tokiraino, ehun bat metro zeudela gutxi gorabehera. Orain ikusten ari garen toki horretatik, hain zuzen, posizio horretatik atera zuen Carlosek argazkia. Beraz, guk kamera toki berean jarri genuen. Hori gaur egungo irudi bat da, orain dela bi aste hartutako irudia, eta orain ikusiko dugu Carlosek egin zuen argazkia. Horixe da. Hau ere infragorriekin egindako argazkia da, horregatik dauka tonu hori, eta hor, hor zerbait arraroa dago”.

- Binaka jarri (talde bakoitzeko bana), eta egindakoa elkarri kontatuko diote, hau da, elkarri deskribatuko dizkiote argazkiok.

Feedbacka: (10´)

- Egindako deskripzioak eta bideoan ematen direnak konparatu, 3. eta 4.bideo-pasarteak ikusiz.

Gramatika eta diskurtsoa: hipotesiak egiteko esakuneak aztertu (10´)

- Erreportajearen hipotesiak egiteko erabiltzen diren esakuneak izango dituzte zerrenda batean, beste batzuekin batera. Kiniela bat egingo dute:
 - 2- hipotesiak egiteko balio du, baina ez dute erreportajearen erabili.
 - 1- hipotesiak egiteko balio du, eta erreportajearen erabili dute.
 - X- ez du balio hipotesiak egiteko.

	1	X	2
1. Badirudi pertsona bat bi bururekin, edo bi gorputz elkarrekin, eta, gero, buruak desberdintzen direla			
2. Ez zaizue iruditzen hor pertsona bat dagoela?			
3. Nire ustez, hori ezin da garezur bat izan			
4. Bi pertsona daude. Nire ustez, edadetuak dira, zaharrak			
5. Ez horixe!			
6. Gorputzak bata bestearen aurrean baleude bezala			
7. Horko hori gorputz bat izan daiteke			
8. Hori ez da buru bat. Argi eta garbi ikusten da belar-multzo bat dela			
9. Beste itzal horrek burezur-forma daukala ematen du			
10. Hor ikusten diren bi itzal beltz horiek izango al liriateke?			
11. Ez nago batere ados			
12. Hori pertsona bat izan daiteke, ezta?			

Zuzenketa-orria

Kinielaren emaitzak: 1 / 2 / 2 / 1 / X / 1 / 2 / X / 2 / 1 / X / 2

- Hipotesiak egiteko esakuneen zerranda luzeagoa osatzeko eskatu.

Atazaostea: (10´)

- Lau bideo-pasarte horietan egin diren adierazpenak izango dituzte eztabaidatzeko.
- Bukatzeko, argazki-lehiaketa bat antola dezakezue. Argazkiak lehen begi-kolpean interpretatzen zailak diren horietakoak izan daitezke. Ikasleek eurek egin dezatela antolaketa: helburuak, prozedurak, bitartekoak, sariak, eginkizunak... Azkenean, euskaltegiko pasilloan argazkiak jarri, eta argazkian zer agertzen den asmatzen duenari oparitxo bat eman.

2

Atazaurrea: galdera baten erantzuna aurreikusi (10´)

- Hasteko, goera aurkeztu: bideo-zati horietan heriotzaren osteko bizitzaz arituko dira.
- Ataza honen lehenengo zatian bezala, Mainerrek beste galdera bat egingo dio Xabierri bideoan. Ikasleek, taldeka, Xabierrek emandako erantzuna zein den aurreikusiko dute, erantzun batzuen artean logikoena iruditzen zaiena aukeratuz. Galderak Carlos Gilek aurretik esandako zerbaitekin zerikusia duenez, lehendabizi adierazpen hori irakurriko dugu. Galdera: **“Zuk, Xabier, sinesten duzu heriotzaren osteko bizitzan, edo gustatuko litzazuke bizirik irautea fantasma itxuran edo espektror baten forman?”**

Carlos Gilek egindako adierazpenak

“Nire ustez, heriotzaren ondoren bizitza dago. Erabat ziur nago. Nik uste dut, erlijioa alde batera utzita, bizitzak ez lukeela zentzu handirik edukiko familia pobre batean jaiotako pertsona batentzat, gosea pasatzen duenarentzat edo hala moduz hiltzen denarentzat. Zer zentzu dauka bizitzak horrelako pertsona batentzat? Ba, jaiotze balitz, hobe. Zerbait egon behar da, argi eta garbi, txanponaren beste aldea, ez dakit, bidegabekeriak, injustiziak eta mundu honetan bizi izandakoak justifikatuko dituena. Ni guztiz ziur nago. Luzea da orain eta hemen azaltzeko, baina ziur nago beste bizitza bat dagoela heriotzaren ondoren. Erabat ziur.”

1.	2.	3.
"Nik ez dut uste heriotzaren ondoren ezer dagoenik, baina, egongo balitz, segur aski horrelako zerbait izango litzateke, bai. Eta gustura ibiliko nintzateke gainera, hor zehar, atzera eta aurrera..."	"Ba, guztiz logikoak iruditzen zaizkit Carlosek eman dituen arrazoiak; beraz, bai, uste dut heriotzaren osteko bizitza egon badagoela. Hala ere, ez dakit, ez nuke nahi mamu-itxuran irautea..."	"Nik ez dakit gero zer izango den, baina, balitz ere, nik bestelako zerbait imajinatu nahi nuke..."

Zuzenketa-orria

3.a

- 5. bideo-pasartea ikusiko dugu (8.eranskina), egindako hipotesiak egiaztatzeko.

Ataza: bideoa ikusi, eta galderei erantzun; entzuten den zarata bat interpretatu (10´)

- Hasteko, 6. bideo-pasartea ikusi (9.eranskina), eta galderei erantzungo diete, taldeka.

GALDERAK

- Zer egiteko ohitura du Carlosek?
- Zer eskatu zion Mainerrek?
- Zer erantzun zion Carlosek?
- Zer ikusten da psikofonia honen bitartez? Beste gauza batzuen artean, zer egiten dakite izpirituek?
- Non grabatu zuen psikofonia hau?
- Zergatik grabatu zuen hor?
- Norekin joan zen grabazioa egitera?
- Han zegoela, zer ikusi zuen? Zer egiten ari ziren lagun horiek?
- Berak entzun al zuen zerbait?
- Etxean grabazioa jarri eta...

- Berririko, erantzunak egiaztatzeko.
- Bideo-pasartearen bukaeran psikofonia bat entzun dezakegu (ez da ezer ulertzen, egia esan, baina zuek entzun). Taldeka jarrita, adierazi ea zerbait ulertu duten ala ez. Segur aski, erantzuna ezezkoa izango da, baina egin dezatela hipotesi bat, egoera kontuan hartuta (irainen bat entzuten da, bikote gazte bati zuzendutakoa).

Feedbacka: (5´)

- 7. bideo-pasartea ikusi (10.eranskina), Carlos Gilek psikofonia horri ematen dion interpretazioa zein den jakiteko.
- Hipotesia egiterakoan zerbaitetan asmatu duten esan.

Ataza: bideoan kontatu diguten gertaeraren eskema bi zatitan eman, eta elkarri kontatu (10´)

- Gertaera bi zatitan eman, eskema moduan. Binaka jarrita, batak besteari kontatuko dio. Ikasle bakoitzak *gertaera-fitxa* bana hartu beren eranskinetatik (*A eta B gertaera-fitxak*), eta, lehendabizi, bertan agertzen den eskema ordenatuko dute. Nahi izanez gero, bere *gertaera-fitxa* bera duen beste batekin elkartu, eskema ordenan jarri, kontatu beharrekoa prestatzeko.

Gertaera-fitxak (a)	Gertaera-fitxak (b)*
Oso psikofonia kurioso utzi digu Carlos Gilek	Sei bat minutu pasa, eta zinta geratu
Mikroa harri batean jarri, eta magnetofonia martxan jarri	Carlosek uste du izpirituak "puta" esaten duela
Maiderek artxibo horretatik bateren bat eskatu	Bikotea maiteminduta zegoen, eskutik ebatuta zihoazen biak. Elkarri musu eman.
Egun batean Zugarramurdira joan, ingurua psikofoniak grabatzeko aproposa zelako	Grabazioan zerbait arraroa sumatu
Carlosek gehienak oso beldurgarriak direla esan, eta normalenatariko bat utziko diola	Antza, iraina bikote hartako neskari zuzenduta zegoen, izpirituak bazekielako ez zela fidela
Minutu batzuetan zain geratu	Bat-batean bikote bat agertu, paseoan
Honen bitartez izpirituak ere irainak botatzen dakitela ikusi	Etxera bueltatu, eta zinta entzun
Carlosek psikofonia-artxibo bat osatu	Bitartean, magnetofoniak grabatzen jarraitu

* Kontuan hartu honen aurretik beste zati bat dagoela. Aurreko zati hori modu honetan bukatzen da: "Carlosek mikrofonoa jarri zuen harri gainean, eta magnetofonia martxan jarri zuen. Gero minutu batzuk zain geratu zen"

- Ondoren, bakoitzak bere zatia kontatuko dio besteari.
- Bukatzeko, egindakoa aztertu, hurrengo galdera hauei erantzunez:

- Uste duzu zure ikaskideak ondo ordenatu duela kontakizuna?
- Zerbait aldatuko zenuke?
- Zuk askotan begiratu duzu papera?
- Abiadura nolakoa izan da? Motela? Azkarregia?
- Uste duzu bideoa ikusi ez duen batek zati hori ulertuko lukeela? (Entzundakoa baloratu)

Gramatika eta diskurtsoa: ziurtasun-maila aztertu, eta praktikan jarri, berri motzak kontatuz (20´)

- Bideo-pasartean transkripzio-zati batzuk emanda, ziurtasunez eta ziurtasunik gabe nork hitz egiten duen adierazi beharko dute, transkripzioan zer ikusi duten esanez (formak azpimarratu). Horretarako, azpiko hiru galderei erantzun.

<p>.....</p> <p>MAIDER: Ez. Carlos guztiz konbentziturik dago gauza hauek existitzen direla, gu ez gaudela bakarrik mundu honetan, eta, gainera, ziur dago ere bai bizitzaren ostean, heriotzaren ostean, barkatu, beste bizitza-mota bat dagoela. Carlosek erreflexio-mota hau egiten du bizitzaren osteko bizitza horri buruz.</p> <p>CARLOS: Nire ustez, heriotzaren ondoren bizitza dago. Erabat ziur nago. Nik uste dut erlijioa alde batera utzita bizitzak ez lukeela zentzu handirik edukiko familia pobre batean jaiotako pertsona batentzat, gosea pasatzen duenarentzat edo hala moduz hiltzen denarentzat. Zer zentzu dauka bizitzak horrelako pertsona batentzat? Ba, jaio ez balitz hobe. Zerbait egon behar da, argi eta garbi, txanponaren beste aldean, ez dakit, bidegabekeriak, injustiziak eta mundu honetan bizi izandakoak justifikatuko dituenak. Ni guztiz ziur nago. Luzea da orain eta hemen azaltzeko, baina ziur nago beste bizitza bat dagoela heriotzaren ondoren. Erabat ziur.</p>	<p>.....</p> <p>MAIDER: Beno, berriz ere entzun dugu. Beno, nik esango dizuet, bueno, Carlosek, behintzat, hala uste du, psikofonia horretan entzuten den hitza edo iraina "puta" omen da, eta izpiritu horrek esan zuena hori zen; eta Carlosek uste du, ba, bikote hartako neskari zuzenduta zihoala irain hori. Antza, izpirituak ba omen zekien neska hori ez zela fidela bere mutilarekin, eta, ba, irain hori bota zion. Zer iruditzen zaizu istorio hori?</p> <p>XABIER: Fantasma lotsagabe galanta zela.</p> <p>MAIDER: Ba, bai. Eskerrak mutilak ez ziola entzun edo neskak berak ez zuela entzun ze... en fin. Argazkiak ikusi, eta psikofonia hau entzun, eta gero, ba, badirudi, Carlosen ustez, behintzat, ba, mundu honetan ez gaudela bakarrik. Carlos, behintzat, konbentziturik dago, gizakiaren munduaz gain, beste mundu inteligente bat badagoela ere bai...</p>
---	---

GALDERAK:

- 1.- Lagun horietako zein dago kontaktzen duenaz ziur, erabat ziur?
- 2.- Eta zein ez dago oso ziur edo batere ziur?
- 3.- Zertan oinarritu zara, aurreko bi galderei erantzuteko? Testuan azpimarratu.

- Ondoren, binaka, berri bitxi bat aukeratu, eta gainontzekoei kontatu: batak ziurtasunez eta besteak ziurtasunik gabe. Kontaktzen duten bitartean, besteek azpiko galderei erantzungo diete, eta, gero, denen artean hitz egingo dute horretaz. Berriak ideiak baino ez dira. Beste datu batzuk ere asma ditzakete: non gertatu zen, zenbat urte zituen batek, nork ikusi zuen, noiz gertatu zen...

BERRI BITXIAK

1. Emakume batek bere alaba hil zuen labankadaz, deabrua barruan zuelakoan. Benetan izango ote zuen zerbait barruan?	2. Gipuzkoako baserri batean gizon bat hil zen gaixotasun mingarri baten ondorioz. Hil zenean leihoa itxita zegoen, eta bere izpiritua kristalean harrapatuta geratu zen. Jende askok ikusi du. Egia ote?	3. Ume bat mendian galdu, eta artzain batek etxera bueltatzen lagundu zion. Bueltan, etxean jakin zuten artzain hori duela urte batzuk hil zela mendi hartan bertan. Zer gertatu ote zen benetan?
4. Etxe bat salgai jarri dute bertan altzariak-eta mugitu egiten zirelako. Kanposantu baten gainean eraiki zuten. Horregatik izango ote da?	5. Gasteizko Ogasun Sailaren egoitzan ez dute topatzen gaueko txanda egiteko langilerik, zaintzailerik. Ume baten mamua agertzen zaie bertakoei gauez, eta bihurrikeriak egiten pasatzen du gaua. Egia ote?	6. Euskaltegian kantuak entzuten dituzte gauez garbitzen geratzen direnek, mamuen kantuak, eta ez dago ez kaseterik eta ez ezer entxufatuta. Lehen taberna bat zegoen euskaltegia dagoen tokian.

GALDERAK

- Zeinek kontatu du ziurtasunez eta zeinek ez?
- Nola jakin duzu? Zertan igarri duzu?
- Erabili al dituzte bideoan erabiltzen dituzten baliabideak? Eta gehiago? (tonua, abiadura, sustoren bat...)

Gramatika eta diskurtsoa: -(e)la (modua / denbora) (20´)

- Transkripzio-zatiitxo bat eman, eta -(e)la forma testuan bertan aztertu. Zer adierazten digu azpimarratuta dagoenak?

“Zain geratu zen minutu batzutan Carlos. Bat-batean, han bakar-bakarrik zegoela, bikote bat agertu zen. Bera zegoen tokitik pasioan zebiltzala,...”

- Egitura hori lantzeko, “Operako mamua” filmari buruz arituko gara. Horretarako, bertsio bat eskainiko diegu.

OPERAKO MAMUA

Opera-konpositore gizagaixo baten istorioa kontaktzen da film horretan. Bere azken operak lapurtu egin dizkiote. Borroka batean zerbaitek su hartu, eta aurpegia erreta eta desitxuratuta atera da handik. Orduan, Parisko Operako sotoetan ezkutatu da.

Denbora pasatu da, eta, halako batean, opera-abeslari bat agertu da Parisko Operan: emakume eder bat; eta konpositorea liluratuta geratu da horren

ahotsarekin. Emakume horrek abeslari famatua izan nahi du, eta konpositoreak lagundu egingo dio. Bitartean, operak lapurtu zizkionaren kontrako guztiak egiten ahaleginduko da. Operan mamu bat dagoela pentsatzen dute denek.

- Argumentuarekin lotutako ondorengo esaldiak lotu ditzatela.

1. Konpositorea Operan zegoela...	a. ...ahots eder bat entzun zuen: emakume batena zen.
2. Konpositorea enpresariaren lagun batekin borrokan ari zela...	b. ...emakumea sartu, eta izututa geratu zen.
3. Aurpegia erreta, zer egin ez zekiela...	c. ...zerbaitek sua hartu, eta konpositorea aurpegia guztiz desitxuratuta geratu zen.
4. Behin, konpositorea sotoetan guztiz abailduta zegoela...	d. ...Parisko Operako sotoetara joan zen, maskara bat jarrita.
5. Halako batean, emakumea bere gelatik ateratzera zihoala...	e. ...enpresari lotsagabe bat bere etxean sartu, eta idatzitako azken operak lapurtu zizkion.
6. Beste batean, "mamua" sotoan maskara kenduta zuela...	f. ..."mamua" agertu, eta ahotsa fintzen lagunduko ziola esan zion, famatu egiten lagunduko ziola.

Zuzenketa-orria

1 - e	2 - c	3 - d	4 - a	5 - f	6 - b
-------	-------	-------	-------	-------	-------

- Gero, binaka, zerrendatu mamuekin zerikusia duten filmak arbelean. Behar izanez gero, bideo-dendaren batera joateko esan, edota, bestela, interneten bilatzeko.
- Ondoren, film horietako bat aukeratu, ea hiruzpalau esaldi asmatzen dituzten, denbora edo modua adierazten duen -(e)la forma erabiliz. Besteek zein filmez ari diren asmatu beharko dute.

Adibidez:

1. "Star wars: La amenaza fantasma" (<http://www.ciudadfutura.com/elcriticon/amenaza.html>)
2. "Ghostbusters: Los cazafantasmas" (<http://www.culturalianet.com/art/ver.php?art=2150>)
3. "Tres hombres y un bebé" (http://www.geocities.com/paola_azul/3hy1bb.htm) / (http://www.mundoparanormal.com/docs/fantasmas/tres_hombres.html)
4. "El barco fantasma" (Ghost ship) (http://www.cinencanto.com/critic/p_ghostship.htm)
5. "El fantasma del paraíso" (Phantom of the Paradise) (<http://www.mundobso.com/fichapeli.asp?codigo=B594>)
6. "Casper, el pequeño fantasma" (<http://www.horizonteweb.com/revision/Casper.htm>)

Atazaostea: adierazpen batzuen gaineko iritzia eman (15´)

- Azkenik, bi taldetan jarri, ikasleek iritzia eman dezaten: batzuek Carlos Gilek egindako lehenengo adierazpena izango dute eta besteek bigarrena. Horren gainean eztabaidatuko dute, eta hitz egindakoa denen artean azaldu.

A TALDEA

"Nire ustez, heriotzaren ondoren bizitza dago. Erabat ziur nago. Nik uste dut erlijioa alde batera utzita bizitzak ez lukeela zentzu handirik edukiko familia pobre batean jaiotako pertsona batentzat, gosea pasatzen duenarentzat edo hala moduz hiltzen denarentzat. Zer zentzu dauka bizitzak horrelako pertsona batentzat? Ba, jaiotze ez balitz hobe. Zerbait egon behar da, argi eta garbi, txanponaren beste alde, ez dakit, bidegabekeriak, injustiziak eta mundu honetan izandakoak justifikatuko dituen. Ni guztiz ziur nago. Luzea da orain eta hemen azaltzeko, baina ziur nago beste bizitza bat dagoela heriotzaren ondoren. Erabat ziur."

B TALDEA

"Oro har, nik esango nuke psikofoniek zerbait adierazi nahi digutela, ez gaudela bakarrik, akaso. Baina, bizitza inteligenteari buruz hitz egiten dugunean normalena da gora begiratu eta urruneko galaxia batean pentsatzea. Agian, psikofonia horiek esan nahi digutena da bizitza inteligente hori askoz hurbilago dugula, ez dugula gora begiratu behar, baizik eta hona, behera begiratu behar dugula. Agian, gugandik oso gertu daude, ikusi ezin baditugu ere."

C ATAZA: TREBIÑOKO HERRI MADARIKATUA (110´)

Helburuak:

- Gertaerak entzun eta ordenatzea / kontatzea.
- Ziurtasun-maila lantzea.
- Denborazkoak lantzea.

Zertan den:

Bideo-erreportajearen zati batean Otxaten gertatutako azken berriak entzungo ditugu. Bideo-zati hori aztertu, eta horrelako gertaerak kontatzen trebatu.

PROZEDURA:

Atazaurrea: (5´)

- Hasteko, hirunaka jarri, eta Otxateri buruz dauzkaten datuak idatziko dituzte: non dagoen, zergatik den ospetsua, zer gertatu den han, ba al dakiten han gertatutako pasadizoren bat...
- Gero, denon artean datuak batu.

Ataza: bideoa ikusi, eta galdera bana prestatu, ondokoari egiteko (10´)

- Egoera aurkeztu: Maider Eguesek Lizarrako gazte batzuei Otxaten gertatutako pasadizoak kontatuko ditu [8. bideo-pasartean](#) ([11. eranskinean](#)). Ikusi ondoren, bakoitzak ikusitakoari buruzko galdera bat idatzi, eta bere eskuinaldekoari egin. Horrela, bakoitzak galdera banari erantzungo dio.

Feedbacka: (10´)

- Galderen erantzunak bota, eta denon artean hitz egin horretaz; baten batean zalantzaren bat egonez gero, berriro ikusi [8. bideo-pasartea](#).

Gramatika eta diskurtsoa: ziurtasun-mailak kontuan hartuta, berri motzak idatzi (25´)

- Otxateri buruz dauzkagun datuak emango dizkiegu, berri motzak idatz ditzaten; bestalde, ziurtasunez edo ziurtasunik gabe idazteko aukera izango dute. Gero, horman jarriko ditugu idatzitakoak, eta galdetegi bati erantzungo diote.

GURE DATUAK:

- Izurriteak biztanle guztiak eraman zituen, denak hil ziren.
- Psikofonia asko grabatu dituzte. Haietako batean ume baten ahotsa entzuten da, "itxi ate madarikatu hori" esanez.
- Argi arraroak ikusi izan dituzte bertan.
- Langraitzeko preso batek ihes egin, eta guardia zibilak bertara joan ziren, han zegoelakoan. Mamuak edo estralurtarrak ikusi, eta tiroka hasi ziren.
- Bertako apaiza desagertu egin zen.

GALDERAK:

- Zeintzuk daude ziurtasunez idatzita? Zertan antzematen da?
- Zeintzuk daude ziurtasunik gabe idatzita? Zertan antzematen da?
- Zein izan da ziurtasunik eza adierazteko formarik erabiliena?
- Horrelako berrietan, zer da normalena —edo orokorra, behintzat—: ziurtasuna adieraziz kontatzea, ala ziurtasunik gabe?
- Zuk nola idatzi duzu berria: ziurtasunez ala ziurtasunik gabe? Zergatik?

Ataza: egoera eman, eta gertakariak kontatzeko moduan prestatu, binaka.

Besteei kontatu. (25´)

- Binaka daudela, Otxaten gau bat pasatu duen lagun-talde bati gertatzen ahal zaizkion gorabeheren zerrenda egingo dute.

ZERRENDA:

✍ Eskuko telefonoa pilarik gabe geratu

✍ Argi arraroak ikusi



- Ondoren, egoera eman, eta kontakizuna prestatuko dute. Egoera: lagun batzuk asteburua pasatu dute Otxaten, eta han gertatutakoak kontatu dizkizute. Prestatu kontakizuna, gero besteei kontatzeko.
- Bi talde egin: bikote bakoitzeko lagun bana elkartuz. Bakoitzak prestatutakoa kontatuko du, eta guztien artean laukia beteko dute.

Ikaslearen izena				
Zein dira kontakizunean dauden gertaera arraroak?				
Kontatu dituen gauzak harrigarriak izan dira? zergatik?				
Sinesgarria da kontatu duena?				

- Berrito batu bikoteak, eta entzundakoa erkatu.

Gramatika eta diskurtsoa: denborazko formak transkripzioan azpimarratu / hutsuneak bete (15´)

- Ikasleek denborazkoen zerrenda dute beren liburuan.

DENBORAZKO FORMAK

. orain dela...

. halako batean

..-(e)la

. orduko

. ondoren

. bat-batean

. une hartan

. bezain laster

..-(e)nean

. bihar

. aurreko gauean

. hurrengo egunean

. duela...

. beranduago

. bezain pronto

. eta gero

- Berriz entzungo dute 8.bideo-pasartea, eta agertzen direnak azpimarratuko dituzte.
- Gero, "Ondarruko barnetegian mamu bat dute..." artikulu-zatia irakurriko dute, eta, ondoren, beste gertakizun bat emango diegu, hutsuneak betetzeko.

**ONDARRUKO BARNETEGIAN
MAMU BAT DUTE...**

...., badute beste gauza berezi bat ere: mamu bat daukate barnetegian: "Bai, gauez zarata ateratzen du, baina asteburuan bakarrik, orduan jende gutxi geratzen delako, edo bat bakarrik ateratzen da, eta, benetan, izu handia ematen du".

Irakasleak adierazi duenez, aspalditik dago: "Bai, etxe hau antzina zaharren egoitza izan zen, eta hemen jende pilo bat hil da. Gainera, kanposantua ere oso hurbil dago. Eta ez pentsa, mamua gaiztoa da, oheak apurtzen ditu...".

Guk esan genien ez genuela mamuengan sinesten, baina hona hemen jasotako erantzuna: "Zuek ez duzue sinesten ez zaudetelako hemen, baina hemen egongo bazinate, sinistuko zenukete...".

*119. Aizu! aldizkaria

HUTSUNEAK BETE

Zihoala / hurrengo egunean / zebilela / bat-batean / orain dela / zuela / zegoela / gero / zegoela / ondoren / bezain laster

....nire lagun hau Ondarrun bertan geratu zen asteburuan, beste planik ez zeukala eta bertan geratuko zela, barnetegian. Berak bazekien bakarrik egongo zela, baina ez zitzaion axola izan.

Entzunda zeukan __ (1) __ urte batzuk mamu bat agertu zitzaiola baten bati, baina ez zuen horrelako konturik sinesten, eta lasai asko egin zuen lo ostiral gauean. Lo __ (2) __ kate zarata bat-edo entzun zuen, goiko pisuan. Ez zion garrantzirik eman.

__ (3) __, ordea, goiko pisura igo eta bertako zorua urratuta zegoela konturatu zen. Hala ere, burutazioak zirela eta, segur aski, urradura haiek aurretik egindakoak izango zirela pentsatu zuen. Han goian __ (4) __, __ (5) __, zarata batzuk entzun zituen sukaldetan. Hara jaitsi, eta hara!, gosaria prest zeukan mahaian! Ze ondo! Poz-pozik geratu zen, sukaldariaren sorpresatxo izango zelakoan.

Gosaldu __ (6) __, kalera ateratzea pentsatu zuen. Beraz, logelara igo eta ohea egin zuen. __ (7) __ dutxan sartu zen.

Gauzak hartzera __ (8) __, bere ohea egin gabe zegoela ikusi zuen. Oso arraroa iruditu zitzaion, ziur baitzegoen __ (9) __ minutu batzuk egin zuela. Dena den, ez zuen gehiegirik pentsatu eta berriro egin zuen. Ohea egin __ (10) __, gauzak hartu eta kalera atera zen. Ez zuen gogoratzen atea giltzaz itxi zuela, baina bueno, giltza hartu, ireki eta bueltatxo bat ematera abiatu zen.

Pasioan __ (11) __ barnetegiko sukaldaria topatu zuen:

- Aupa! Aizu, mila esker gosaria prestatzeagatik, e?

- Gosaria? Nik emango dizut zuri gosaria! Zergatik itxi duzu atea giltzaz? Ezin izan dut ireki, eta, gainera, ez nekien bertan zeundetela! Eta zertan ibili zarete horrenbesteko zaratak ateratzeko? Sekulako iskanbila entzuten zen kanpotik!

Zuzenketa-orria

1. orain dela / 2. zegoela / 3. hurrengo egunean / 4. zegoela /
5. bat-batean / 6. ondoren / 7. gero / 8. zihoala / 9. zuela / 10.
bezain laster / 11. zebilela

- Guztion artean aldera ditzatela erantzunak.

Atazaostea: gertaerak azaldu (20´)

Pasadizo horiek "X-Files" amerikar teleaioan agertuko balira (FBIko bi polizia berezi dira), segur aski, Mulder agenteak erantzun paranormalen bat bilatuko luke horientzat, eta Scully agentea, ordea, dena zientziaren bidez argitzen saiatuko litzateke.

- Talde txikiak egin, eta, Scullyren rola hartuta, ea irtenbide zientifikoa topatzeko gai diren, Lizarrako gazteei gertatutakoak zientifikoki azaltzeko.

- Eskuko telefonoa bateriarik gabe geratu (gutziz beteta zegoen, hara joan zirenean)
- Argazki-kamera seigarren argazkian errebobinatzen hasi bat-batean(36ko karretea zen)
- Linterna bat bizkar-zorroan gorde, eta hurrengo egunean pilak guttiz ugertuta agertu

- Ikaskideen aurrean aurkez ditzatela prestatutako argudioak, eta sinesgarrienak zein diren erabaki dezatela.

D ATAZA: OTXATERI BURUZKO IPUINAK (125´)

Helburuak:

- Ipuin batean gertakarien kontaketa ulertzea.
- Gaiari buruzko ipuin bat idaztea.
- Testu idatziak ulertzeko / sortzeko estrategiak garatzea.
- Lokailuak aztertzea.
- Erreferenteak aztertzea.

Zertan den:

Trebiñoko ikasle batek idatzitako ipuina irakurri, eta komikia ordenatuko dugu. Ipuinak idazten ere trebatuko gara, lehenengo eta behin ideiak arbelean zerrendatuz, denon artean.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: irakurri behar duten ipuinaren izenburua asmatu (5´)

- Hasteko, kontuan hartuta ipuinaren izenburua nahiko arrunta dela, taldeka jarri, eta izenburua zein izan daitekeen asmatu. Talde bakoitzak hiru izenburu aukeratuko ditu. Arbelean jarriko dituzte denak.
- Pentsatutako izenburuak arbelean jarri ondoren, azaldu besteei zergatik aukeratu dituzten izenburu horiek. Utzi izenburu guztiak arbelean, gero ikusiko baituzue zein den jatorrizko izenburua!

Ataza: irakurri aurretik komikia ordenatu, ipuina idatzi, jatorrizkoa entzun eta alderatu (30´)

- Desordenan duten komikia banatuko diegu ([12.eranskina](#)), taldeka ordenatu, eta ipuin logiko bat idatz dezaten, beren ustearen arabera. Horrela, irakurriko duten ipuinaren aurreikuspena egingo dute.
- Komikiarekin osatutako ipuina beste talde bati eman, eta benetako ipuina entzun ahala ([13.eranskina/9. bideo-pasarte](#)) pentsatutako istorioarekin bat datorren aztertu. Besteei esan zertan ez datorren bat. Beraz, beste bertsio hori jasota, ipuina entzungo dute, eta beren ikaskideek osatutako istorioarekin konparatuko. Horretarako, hurrengo galdera hauei erantzun beharko diete:

- Berdinak dira ipuinean kontaktzen dena eta ikaskideek osatutako bertsioa?
- Desberdintasunik balego, zein dira?
- Talde bakoitzak bere bertsioaren azalpena eman. Beste batzuen bertsioetan kontraesanak ikusiz gero, esan zein diren.

- Bukatu ondoren, egindakoa elkarri kontatu, eta, zalantzarik egonez gero, guztion artean hitz egin.

Gramatika eta diskurtsoa: lokailuak bere lekuan kokatu, eta erreferenteak aztertu (10')

- Banatu ipuinaren transkripzioa (13. eranskina)
- Alde batetik, kontakizun honetan erabiltzen diren lokailuak ezabatuta izango dituzte, eta ikasleek jarri beharko dituzte, zein funtzio betetzen duten zehaztuz. Horrela, ipuinean ideiak lotzeko, kontrajartzeko, gehitzeko... erabiltzen diren lokailuak aztertuko ditugu.
- Bestetik, testuan azpimarratuta dauden formek erreferentzia zeri egiten dioten esango dute. Adibidez: 'han' formak zein lekuri egiten dio erreferentzia: mendiari, etxeari...?

"OTXATEN GAU BAT" IPUINA

Unai artzaina zen, eta egunero ibiltzen zen **bere** artaldearekin belar bila Gasteizko mendietan zehar. Urte hura oso lehorra izan zen, _____, eta udazkeneko egun batean **urrunago** joatea erabaki zuen, ardiek belar goxoa bazka zezaten.

Otxate aldera abiatu zen artaldearekin, _____ etxera itzultzeko unea iritsi zenean konturatu zen bere arkumerik kuttunena ez zegoela. Arkume haren ama erditzean hil zen, eta ordutik semetzat hartu zuen Unaik, eta asko maite zuen. _____, ezin zuen arkumerik (Dolli) gabe alde egin; _____, Otxatetik hurbil zegoen, eta, ziotenez, herri hartan gauza arraroak gertatzen ziren.

Azken hori zela-eta, beldurrak jota, Dolli leku misteriotsu hartan ez uztea pentsatu zuen; _____, beharrezkoa izanez gero, **han** pasako zuen gaua. Orduan, Pintxe bere txakurraren laguntzaz artaldea elkartu zuen, eta Otxaterantz jo zuen. Iluntzen ari zen, eta hotz egiten zuen; bat-batean, tximinia bateko kea ikustean alaitu egin zen, eta, presaka, artaldea Pintxen zaintzapean utzita, etxe hartara joan zen. Ondoan dorre handi bat zegoen. Etxean sartzean zeraz konturatu zen: suak, besterik gabe, _____, inork egurra bota gabe, irauten zuela, inoiz itzali gabe; _____, denbora osoan sugar handia mantentzen zuen.

_____, kanpoan ahotsak entzuten ziren. _____, Pintxek lasai egiten zuen lo, ez baitzen zaunkarik entzuten, _____, ez zegoen kezkatzeko arrazoirik. _____, beldurrez eta kostata, kanpoan zegoen edonori ea Dolli ikusi zuen galdetu beharko ziola pentsatu zuen. _____, atea ireki zuen. Kanpoan ez zen ezer ikusten, ilun eta lainotsu baitzegoen; ahotsak eta zaratak, _____, **hantxe bertan** zeudela ematen zuen. Ez zen esaten zutena ulertzen; baina Unaik oihuka galdetu zuen ea norbaitek arkume bat ikusi zuen. Bat-batean ahots guztiak desagertu egin ziren, ez zuen erantzunik jaso; orduan berriro egin zuen galdera bera, ozenkiago oihukatuz, eta orain bai, ahots garbi batek baietz esan zion, arkumea beraiekin zegoela, **beraien** herrira joan zela eta, behe-laino artean dorrean sartu zenez, orain ezin zela atera. Ateratzeko modu bakarra mendian zegoen harri arteko zulo batetik zela esan zioten Unairi. Egun batzuetan **leku hartatik** bat-batean ura ateratzen zela ere esan zioten.

Hori entzutean, kontu hark urarekin zerikusia zuela ohartuta, erreka baten bila joan zen. Ibili eta ibili, erreka betetako leku bat aurkitu zuen. Erreka haien guztien barruan eta ertzetan, batean izan ezik, animalia asko zeudela konturatu zuen. **Une hartan**, erreka hura kanpora joango zela pentsatu zuen, _____ beste erreketan zeuden animaliek Otxateko lurretatik hanka egingo baitzuten. Dolli animalia haien artean ikusi, besoetan hartu eta animaliarik gabeko erreka eraman zuen, ezertan pentsatu gabe. Ura, oharkabea, harrotu egin zen eta biak eroan zituen errekan zehar. Unairen ustez uretan denbora luzea eman ostean, azkenean urjauzi batean egongo balira bezala, mendian agertu ziren, aipatutako zuloaren ondoan. Zelako ustekabea hartu zuen Unaik Pintxe eta artaldea **hantxe, euren** zain, ikusi zituenean!. Denak pozik, korrika alde egin zuten.

Unaik, azkenean, zoriontsu, Otxateren misterioa aurkitu zuen; baina ez da inoiz, nahiz eta betiko larretan belarrik ez egon, Otxate aldera itzuliko.

Horrela bada, ez bada, sar nadila kalabazan, eta irten nadila Otxateko errekan.

ELENA ORTIZ DE URBINA
(AEKren TREBIÑOKO GAU ESKOLA)
AIZU! aldizkaria, 234.zenbakia (22. eta 23.orr.)

LOKAILUAK

gainera
dena den
baina
berriz
are gehiago
beraz
ordea
horregatik
hots
gainera
bestela
bestalde
beraz
hala ere

FUNTZIOAK

Bi ideia kontrajartzea
Ideia bat beste bati
gehitzea
Ideia bat beste baten
ondorioz gertatzen dela
esatea
Arrazoi bat azaltzea
Azalpenak eman edo
adibideak jartzea

.....
.....

Atazaostea: galderak erantzun denon artean (5´)

- Ataza honi bukaera emateko, egindako guztia baloratu egingo dugu. Hona hemen hizketarako galdera batzuk:
 - izenburu egokia da? zergatik?
 - beste izenburu bat ipintzekotan, zein jarriko zenioke? zergatik?
 - arbelean dauden izenburuen artean ba al dago aproposa izan daitekeen besteren bat?
 - zer da gehien gustatu zaizuen? eta gutxien?
 - ...

2

Atazaurrea: ipuina idazteko izenburua, hasierako formulak eta bukaerakoak asmatu (10´)

- Otxaten gertatutako zerbaiten inguruko ipuina idaztea da oraingo eginkizuna. Lehenengo eta behin, ipuinaren izenburu posibleak pentsatuko dituzte taldeka, eta arbelean jarri denak.
- Horrekin batera, ipuina hasteko eta bukatzeko formula posibleak ere aterako dituzte, eta zerrenda arbelean jaso.

Ataza: izenburua aukeratu eta ideiak bildu / ipuina idatzi (45´)

- Bakoitzak gehien gustatu zaion izenburua aukeratuko du. Ipuin horretan gerta daitezkeen gorabeherak zerrendatu egingo dituzte, taldeka: pertsonaiak nor izan daitezkeen, zein leku agertzen diren, gertakizunak, hasiera eta bukaera...
- Ondoren, ipuina idazteari ekingo diote, bakoitzak gehien gustatu zaizkion ideiak hartu ostean.

Feedbacka: ipuinen balorazioak egin, galderak erantzunez (10´)

- Ipuinak irakurri taldeka, eta bakoitzari puntuazio bat eman.
- Idatzitako ipuinen balorazioak egin:
 - zein izan da politena?
 - zein izan da harrigarriena? zergatik?
 - zein izan da hobeto ulertu duzuen?
 - suspensea egon al da ipuinetan?
 - hasteko eta bukatzeko formulak agertu al dira?
 - zeinek jaso du punturik gehien?

Atazaostea: ipuin-lehiaketa antolatu (10´)

- Euskaltegian, herrian, auzoan... Otxateri buruzko ipuin-lehiaketa antolatuko dute.

E ATAZA: GOAZEN OTXATERA!

(65´)

Helburuak:

- Elkarrizketa batean proposamenak egitea eta arrazoiak ematea.
- Planak egitea.
- Lokailuak: gehitzea, kontrajartzea.
- Izenordain mugagabeak aztertzea / lantzea.

Zertan den:

Elkarrizketa bat sortuko dute. Bertan lagun batek beste bati proposamen bat egin, eta besteak hori ez egiteko (edo egiteko) arrazoiak emango dizkio. Bukatzeko, Otxatera joateko plana eztabaidatuko dugu.

PROZEDURA:

Atazaurrea: testua irakurri, eta Otxateko bidea markatu mapa batean (5´)

- Otxaterako bidea markatuko dute mapa batean, ondorengo testuan duten informazioa kontuan hartuta.

OTXATE

Otxate Arabako herri txiki bat da. Trebiñon dago, eta gaur egun ez da inor bizi bertan. Hara joateko, lehendabizi, Gasteizeraino joan behar duzue. Gasteizko Adurtza auzotik atera, eta Gasteizko mendaterantz abiatu.

Atera bezain laster (errotonda pasa ondoren), Aretxabaleta herrian sartuko zarete, ondo-ondoan baitago.

Aretxabaletatik atera, eta Gardelegi herrian sartuko zarete. Bertan dago zabortegia, eta, segur aski, hainbat zikinkeria ikusiko duzue bazter guztietan.

Aurrerago, Gasteizko mendatea dago. Bihurgune ugari dago bertan, baina, lasai ibiliz gero, ez duzue arazorik izango. Mendate erdian gutxi gorabehera Trebiñon sartuko zarete.

Jaisterakoan lehenengo bidegurutze bat ikusiko duzue, ezkerretara doana, Donebikendira. Otxate ez dago handik urruti, baina hobe duzue hurrengo bidegurutzea hartzea.

Pixka bat aurrerago joanda, beste bidegurutze bat topatuko duzue, hori ere ezkerretara sartzen dena. Hori da hartu behar duzuen, Imirurira doana.

Imirurin errepidea bukatu egiten da. Handik Otxatera oinez abiatu behar duzue, baina ez pentsa asko ibili beharko duzuenik, hantxe bertan dago eta.

Ataza: elkarrizketa entzun, galderei erantzun eta klaseko norbaiti zerbait egitea proposatu (20´)

- "Goazen Otxatera!" izeneko elkarrizketa entzungo dute ([14.eranskina / 10. bideo-pasartea](#)), eta guztien artean entzundakoari buruzko galdera batzuei erantzun.

- ✍ Zeinekin zatoz bat: joan nahi duenarekin ala joan nahi ez duenarekin? Zergatik?
- ✍ Datu berriren bat lortu duzu elkarrizketa entzutean? Zein?
- ✍ Otxatera egunez joanez gero ez zaizula ezer gertatuko uste duzue?

- Bakoitzari rol bat eman, klaseko norbaiti zerbait egitea proposa diezaion. Horretarako, ikasle bakoitzak *proposamen-fitxa* bana hartuko du. Zortzi fitxa daudenez, bi taldetan banatu, fitxak baino ikasle gehiago izanez gero.

PROPOSAMEN-FITXAK

1.- Espiritismo saio batean parte hartu nahi duzu. Proposatu baten bati.	2.- Psikofoniak grabatzera joan nahi duzu Zugarramurdira. Proposatu baten bati.
3.- Altzariak mugitzen diren etxe batean gaua pasatu nahi duzu. Proposatu baten bati.	4.- Hilerrira joan nahi duzu, infragorriekin argazkiak ateratzera. Proposatu baten bati.
5.- Psikofoniak grabatu nahi dituzu hilerrian, gauetz. Proposatu baten bati.	6.- Zure etxean altzariak mugitzen dira. Saldu egin nahi duzu. Proposatu baten bati.
7.- Gasteizko Ogasun Sailaren egoitzan dagoen mamua ikusi nahi duzu. Bertan gaua pasatzea proposatu baten bati.	8.- Mamuak bizi diren etxe bat erosi nahi duzu, hotel bat jartzeko. Lagun bat behar duzu. Proposatu.

- Bakoitza bi edo hiru lagunekin aritu ondoren, denon artean hitz egin ea nor konbentzitu duten eta nor ez, bakoitzak eman dituen arrazoiak, zein izan den arrazoirik logikoena, edo arrazoirik barregarriena, sinesgarriena, sinesgaitzena...

GALDERAK

- Konbentzitu al duzu baten bat? Zein? Nola?
- Zein izan dira ezetz esateko arrazoiak?
- Zure ustez, zein izan da eman dizuten arrazoirik logikoena edo sinesgarriena?
- Eta arrazoirik sinesgaitzena?
- Zein izan da arrazoirik barregarriena?
- Zuri beste batek proposamen hori luzatuz gero, zer esango zenuke?

Gramatika eta diskurtsoa: lokailuak eta esakuneak zerrendatu, eta elkarrizketan agertzen direnak markatu (20´)

- Taldeka, hainbat lokailu eta esakune zerrendatzeko esango diegu (proposamenak egiteko, ezezkoa adierazteko, ideiak kontrajartzeko).
- Ondoren, elkarrizketa berriro entzun, eta han agertu direnak jaso.
kontrajartzeko erabiltzen diren lokailuak (kasu honetan, konbentzitzeko). Adibidez: 'baina'
proposamenak egiteko esakuneak. Adibidez: 'zergatik ez gara Otxatera joaten?'
ezezko borobila emateko esakuneak. Adibidez: 'ni ez noa'

Zuzenketa-orria

Testuan agertzen diren esakune edo lokailuak:

- **KONTRAJARTZEKO**: "Baina", "baina begira", "dena dela" (konbentzitzeko)
- **PROPOSAMENAK EGITEKO**: "zergatik ez gara joaten Otxatera?", "egunetz etorriko zinateke?"
- **EZEZKOA EMATEKO**: "ni horra ez noa", "inola ere ez", "ezta pentsatu ere"

Gramatika eta diskurtsoa: izenordain mugagabeak landu (10´)

- Izenordain mugagabeak landuko ditugu. Horretarako, testuaren transkripzioa eman hutsuneetan falta dena koka dezaten.

- | | | |
|-----------|-----------|------------|
| ➤ ezer | ➤ norbait | ➤ ezer |
| ➤ inori | ➤ ezer | ➤ zerbait |
| ➤ zerbait | ➤ inori | ➤ noizbait |

Otxateko mamuak

- Aizu, Asier, zergatik ez gara joaten Otxatera asteburu honetan?
- Otxatera asteburu honetan? Baina, badakizu zer dagoen han?
- Baina, ez dakit, plan desberdin bat izan daiteke, esperientzia berri bat...
- Baina, Otxatera esaten ari zara, e!; mamuak dauden herri horretara, e!; ejertzitoak hainbeste arazo izan dituen herri horretara, e!...
- Zu eta zure mamuak!
- Hor... frogak badaude, grabazioak badaude eta gauza asko ikusi ditu jendeak, eta hor badakigu __ (1) __ badagoela. Ni, badaezpada, ni horra ez noa. Egunez, agian, ausartuko naiz, baina... egunez ez delako __ (2) __ gertatuko, baina gauez ni ez noa, inola ere ez!
- Baina, begira, nik ezagutzen dut jendea han egon dena, eta __ (3) __ ez zaio __ (4) __ gertatu.
- Oraingoz! Oraindik __ (5) __ ez zaio __ (6) __ gertatu, baina, hor mamuak baldin badaude, __ (7) __ __ (8) __ gertatuko da, disgustu handiren bat izango dugu, eta... eta ez, ez! Ni ez noa! Ezta pentsatu ere!
- Ba, orduan, beste __ (9) __ bilatu beharko dut, baina, dena dela, egunez etorriko zinateke?
- Bai, bai, bai. Egunez joango naiz, eta gauean zuek bakar-bakarrik gelditu.
- Ondo da.

- Ondoren, hitz bana eman ikasleei, ondorengo izenordainekin batera esaldi bana egin dezaten (kontuan hartu deklinatu egin daitezkeela). Gero moztu, horman jarri, eta ikaskideek egindako esaldiak irakurri. Denon artean zuzendu.

Zerbait:
Nor bait:
Ezer:
Inor:
Noiz bait:

HITZAK

Otxate	argia	ametsa
mamua	eguna	ilargia
zarata	gaua	izpiritua
ahotsa	arazoa	argazkia

- Bukatzeko, binaka jarri, eta izenordain mugagabe horiek erabiliz, gai honi buruzko galdera pare bat prestatu, gelako beste bikote bati egiteko. Denon artean hitz egin emandako erantzunen gainean.

Atazaostea: Otxatera joateko plana eztabaidatu (10´)

- Guztiok Otxatera joateko plana eztabaidatu. Ondo atera ezkerro, bideo-kamera eraman, eta kronikatxo bat egin dezatela, gero euskaltegian erakusteko.

3. Material osagarria

F ATAZA: OUIJA

(50')

Helburuak:

- Aurreikuspenak egitea.
- Aurreko ezagutza baliatzea.

Zertan den:

Bideo-pasarte batean ouijari buruzko informazioa jasoko dute. Bideoa ikusi aurretik, gaiari buruz dakitena eta euren ustez puntu batzuen gainean entzungo dutenaz hitz egingo dute taldeka. Bideoa ikusi ondoren, zertan ibili diren ondo eta zertan ez adieraziko dute.

PROZEDURA:

Atazaurrea: argazkian dagoena zer den esan (5´)

- Ouija taula batzuen argazkia izango dute (collage antzeko bat). Hori ikusi eta zer den esan beharko dute.

Ataza: aurreikuspenak egin eta aurreko ezagutza erabili. (10´)

- Ikasleak taldeka jarriko dira ouijari buruz zer dakiten azaltzeko, alde batetik, eta bideoan emango den informazioa zein izango den aurreikusteko, bestetik. Beraz, taula bat bete beharko dute: "zer dakizue gaiari buruz" eta "zer uste duzue esango dutela?" zutabeak betez (galdera batzuk izango dituzte hitz egiteko, pista moduan).

	ZER DAKIZUE GAIARI BURUZ?	ZER USTE DUZUE ESANGO DUTELA BIDEOAN?	ZER ESAN DUTE BIDEOAN ? (ikusi ondoren betetzeko)
Zer da "ouija"?			
Nolakoa da?			
Zertarako erabiltzen da?			
Nortzuk erabiltzen dute?			
Arriskurik ba al dauka? Zein?			
Erabiltzeak sortzen al du ondoriorik?			
.....			
.....			
.....			

Feedbacka: bideoa ikusi (25´)

- **11. bideo-pasartea** ikusiko dute (**15.eranskina**) eta hirugarren zutabea beteko dute: "zer esan dute?". Ondoren, galdera hauei erantzuna eman:
 - gauza asko asmatu al duzue?
 - Lagundu al dizue aurretik lan hori egiteak?
 - Zenbat ideia berri agertu da bideoan? (zuk ikusi aurretik jakin ez dituzunak)
 -

Atazaostea: gai honi buruzko iritzia eman (10´)

- Bakoitzak ouijarekin esperientziaren bat izan duen ala ez esan. Gero, bideoan entzundakoen inguruko iritziak eman.

4. Eranskinak

I. eranskina

Ikasleen autoebaluazio-orria

- IKASITAKOA

- Ikastunitate honetan hipotesiak egiteko esakune hauek ikasi ditut:
.....
.....
- Iritziak emateko esakune berri hauek ikasi eta erabili ditut:
.....
.....
- Ziurtasun-maila desberdinak daudela ikasi dut. Azalpena hitz gutxitan:
.....
.....
- Estrategien inguruan, honako gauza hauetaz konturatu naiz:
 - testu bat ulertzeko garrantzitsua da.....
 - zerbait idazteko garrantzitsua da
 - mintzalditxoa prestatzeko garrantzitsua da.....

- ZAILTASUNAK

- Honako zailtasun hauek izan ditut, atazak egiteko:
 1. Hipotesiak egin eta iritziak emateko orduan:
.....
 2. Proposamenak egitero orduan:
.....
 3. Ipuina idazteko orduan:
.....
 4. Argudiatzeko orduan:
.....

- IKASGELATIK AT

(adierazi bai ala ez)

- Lagunei proposamen bat egin diet.
- Lagunei, etxekoei edota lanekoei klasean ikusitako bideoez mintzatu, eta bertan entzundako pasadizoak kontatu dizkiet.
- Lagunekin, lankideekin edota etxekoeekin gaiari buruz hitz egiten aritu naiz, iritziak trukatu.

- HEMENDIK AURRERA:

Honako hauek hobetu behar ditut:

1. _____
2. _____
3. _____

Psikofonia edo airean dauden ahots misterioitsuak

Inguratzen gaituen airean ohiko kutsadura eta zarata ez ezik, zerbait gehiago ere ba omen dago; psikofoniak, esate baterako. Ahots ezezagunak eta ulergaitzak, nondik datozen ere ez dakigunak, horra hor psikofoniak. Bide batez, esan dezagun berauen inguruan aritzen den zientziari ere psikofonia deitzen zaiola. Hala ere, psikofoniak egitea edonoren esku omen dago, edonork grabatu omen ditzake, baita geroago deszifratzen saiatu ere.

Nondik datoz ahots horiek?

Parapsikologiaren mundutxoan dabilzan gehienek onartzen dute airean ahots misterioitsu ugari daudela, norenak diren eta nondik datozen ere jakin ez arren, grabatu eta entzun daitezkeenak.

Normalean, ez dira esaldi luzeak, hitz solteak edo oihuak baizik; gehienez ere, esaldi labur bat. Gainera, maiz, ulergaitzak izaten dira. Grabatzeko zein entzuteko, kalitate oneko gailu elektronikoak erabiltzea gomendatzen bada ere, badirudi askotan kasete arruntak erabilia ere egin daitezkeela.

Gai honetako adituen ustez, inoiz inork esandako hitzak dira psikofoniak. Teoria horren arabera, hitz egitean-eta, bibrazio bat sortzen da, eta bibrazio hori airean geratzen da betiko, "flotatzen" edo.

Beraz, psikofoniaren bidez, inoiz esandako hitz, oihu eta zarata horiek grabatu eta interpreta daitezke, eta horretarako toki egokia aukeratzea ere garrantzitsua omen da. Hasteko, erabilitako hizkuntza identifikatu beharra dago, esanahia ulertzen saiatzeko. Ondoren, psikofoniaman agertzen dena eta psikofonia "aurkitu" dugun lekua elkarrekin lotzen ahaleginduko gara, grabatutakoari interpretazio zehatza ematearren.

Sinesio Darnell Bartzelonako irakasle eta psikofonietan adituaren ustez, pertsona bakoitzak hiltzean indar edo energia berezia askatzen du. Indar horri pakete kuantikoa deitzen zaio, eta bertatik sortuko dira gerora grabaturiko psikofonietan agertuko zaizkigun ahots misterioitsu horiek.

Pakete kuantikoaren azalpena hauxe dugu: guk geure barnean izpiritu bat omen daukagu, baina izpiritu hori ez da gurea, naturan dago, eta ziklo bat osatzeko, jaitozearekin batera, gure gorputzean sartzen da. Honez gain, arima ere ba omen daukagu, eta horrek ematen dio izpirituari berezko itxura.

Izpiritua eta arima ez dira gauza bera

Hala omen da, arimak formarik gabeko izpiritua moldatzen omen du. Izan ere, izpiritua naturaren zikloen arabera mugitzen da, nonbaitetik dator eta berriro leku horretara itzuliko da. Bitarte horretan, izpiritua lurreratu egiten da, animalia edo pertsona baten gorputzean sartzeko, hots, bizitza emateko. Eta horrela ibiliko da ziklo osoa bete arte.

Dirudenez, hiltzen garenean, arima ez da erabat desagertzen, eta bere hondakinek, airean geratzen diren horiek beroriek, pakete kuantikoa osatzen dute. Hala ere, hondakinok ez dute multzo homogeenorik osatzen, eta, denbora pasa ahala, are gehiago zatitzen dira, airean zehar sakabanatuz. Zati horietan sortzen da psikofonietan entzuten duguna. Horrexegatik, psikofonietan hitz solteak-eta entzun ditzakegu soilik, pakete kuantiko horren

zatitxoak baino ez direlako. Eta arrazoi berberagatik zaila da oso psikofoniak interpretatzea, esanahia emango zien osotasuna galdurik dagoelako; hots, pakete kuantiko famatua apurturik dagoelako.

Ardo botilaren adibidea

Sinesio Darnellek arima eta izpirituaren arteko desberdintasuna hobeto azaltzearen, adibide hau jartzen du: "Pentsa dezagun botila bete ardo daukagula, botila hori hustutzen badugu, nahiz eta barruan dagoeneko ardorik ez izan, ardo horren usain eta zaporea geratuko da bertan. Izpiritua botilan zegoen ardoa da, edatearen (bizitzearen) ondorioz desagertu dena."

Beraz, izpiritutik askatzen diren arimaren hondakin horiek, airean geratzen dira, barreiaturik, noraezean. Eta hondakin horien multzoa da pakete kuantikoa.

Pakete kuantiko mugikorra

Pakete kuantikoaren ezaugarri nagusietariko bat da erabat mugikorra dela eta leku batetik bestera ibiltzen dela airean zehar. Ideia hau Santo Tomasek berak defendatu zuen, esanez hildakoen arimak norberaren bizitzako gertaera garrantzitsuenak jazo ziren lekuetara itzultzen zirela. Iritzi horrekin bat egiten du Sinesio Darnellek goitik behera, berak ere sinesten baitu arima bizitzako gertaera garrantzitsuenen eskenatokira bueltatzen dela, bizitza hori berreskuratzea bultzatzen duen sentimenduari jarraiki.

Bestaldetik, antza denez, bat-bateko heriotza gertatzen denean (istripu batean, adibidez), pakete kuantikoa handiagoa da, zeren-eta bat-bateko heriotza gertatzen denean arimaren zati batzuk ez baitira heriotzaz jabetzen, eta pertsona bizirik balego bezala jarraitzen dute. Zatiok ere, jakina, airean geratzen dira, hiltzean askatzen den berezko pakete kuantikoari gehituz.

Beste arazo bat da —eta ez txikiena— nola bihurtzen den ahots pakete kuantikoa. Badirudi ezinezkoa dela arimaren zatiek bibrazioak sortzea eta bibrazioirik gabe ezinezkoa dela ahotsik egotea. Arazo hau konpontzeko, Sinesio Darnellek ondorengo planteamendu hau egiten du: bizitza arruntean bezala gertatzen da, hau da, guk hitz egiten dugunean, azken finean, geure barneko indarra bihurtzen dugu ahots. Horrela, bada, dimentsiorik gabeko eremu horretan antzekoa suertatzen bide da; hots, zati horiek oraindik ere barruan daukaten indar apurra ahots bilakatzen dutela. Gainera, bizitzakoa eta hil ostekoa ahots berbera ei da.

Ahots berbera hil ostean ere

Pertsona batek hil ostean ahots berbera ez ezik, hizkera berbera ere mantentzen omen du. Edo beste modu batez esanda, gure pakete kuantikoak guk bezalaxe egiten du berba. Hori frogatzeko, Bartzelonan agitutako kasu bat aipatzen du Darnellek. Bertako irakasle bat hil, eta, denbora gutxira, beste irakasle batek egin zituen psikofonietan haren ahotsa susmatu zuen. Hori baieztatzeko, laguna bizi zen artean egindako grabaketekin fonograma baten bidez parekatu zuen psikofonia (fonograma ahotsak parekatzeko eta sailkatzeko sistema sofistikatu da). Bi ahotsak alderatu ostean, ahots berbera zela ondorioztatu zuen argiro. Horrela, erabat frogaturik dago

bizitzako eta norberaren pakete kuantikoko ahotsa zein hizkera berberak direla.

Psikofoniaren bidez etorkizuna ezagutu

Bai, hala omen da. Sinesio Darnellen arabera, etorkizuna aldeztetik ezarrita dago, gu bertara noiz helduko garen zain. Gai honi irtenbide zientifikoa ematearren, zera proposatzen du Darnell irakasleak: gure barruan dauden eta pakete kuantikoa osatzen duten zati horiek geroaldira bidali ditzakegu, etorkizunean zer gertatuko zaigun "ikus" dezaten. Horren ostean, gure orainaldira itzultzen dira, eta gertatuko zaigunaren berri ematen digute. Hori guztia "premonizioa" delakoarekin (etorkizunaren aurreko ezagutza) loturik dago. Fenomeno horren baitan azaltzen dira hainbat gertaera historiko-erlijioso. Adibidez, Abraham eta Moisesek askotan entzuten zuten Jaungoikoaren ahotsa, baita horrela mezu eta aginduak jaso ere. Joana Ark-ekoa frantses emakume sainduak ere ahots bat entzuten zuen sarritan; besteak beste, Frantziaren askatasunaren alde ingelesak kontra borrokatzerantz bultzatu zuena.

Euskarazko hitzak Bartzelonan

Psikofoniak egin ostean gauza bitxiak entzun ohi dira. Aipa dezagun berriro ere Darnelli berari Bartzelonan psikofoniak egiten ari zela gertatutakoa. Bera eta bere lankideak holako frogak batzuk egiten ari zirenean, ulertzen ez zuten hizkuntza batean mintzo zen ahots bat agertu zitzaion. Hainbat kontsulta egin eta gero, jakin zuten hizkuntza ezezagun hura euskara zela eta ahots hark "bikain" esaten zuela.

Ez da hau gertatu zaion kasu xeberre bakarra. Beste batean, orain dela 7000 urte desagertutako egiptoar hizkuntza batez egiten zuen ahots bat ere topatu zuen. Beraz, nahikoa normala omen da gutxien espero daitezkeen hizkuntzak psikofonietan agertzea: grekoa, armeniera, latina eta abar. Beste batzuetan agertzen diren hizkuntzak guztiz ezezagunak dira. Eta badaude erabat ulertezinak diren zarata eta soinu ugari ere.

Kasurik harrigarrietan badago psikofoniak entzutea grabagailurik erabiltzeke, baina, horretarako, leku oso berezia eta kontzentrazio ikaragarria behar dira. Esate baterako, badago orain dela 500 urte-edo hainbat lagun bahiturik egon ziren kobazulo bat; diotenez, bertara joanez gero eta asko kontzentratu ondoren, oraindik ere bahitu haien oihuak eta negarrak entzun litezke.

Amaitzeko, berriro ere lehen esandakoa gogoratu nahi dugu; hots, edonoren esku dagoela psikofoniak grabatzea. Horretarako, honako tresna hauek behar ditugu: ahalik eta kaseterik onena eta erabili gabeko zinta. Azken hau garrantzitsua da, zeren eta, zinta aurreko batean erabili bada, gerta baitaiteke aldeztetik grabatutakoa eta psikofoniakoa elkarrekin nahastea. Lekuak ere aproposa izan behar du; onenak eliza zaharrak eta, batez ere, kanposantuak izaten dira bi arrazoigatik: bata, isiltasun handia egon ohi delako horrelako tokietan; bestea, hildakoek askatu duten pakete kuantikoa inon baino gertuago dagoelako eta, beraz, leku errazena baita ahots misterioitsu horiek grabatzeko. Gainera, kanposantu handiak badira edota bertan jendea ehorzten jarraitzen bada, pakete kuantikoen kopurua handia izango da, ezinbestean.

Psikofonia edo airean dauden ahots misterioitsuak testua (Aizu! Aldizkarian argitaratua, 1987ko udako ale berezian: -59-60.zkiak.)

Psikofonia edo airean dauden ahots misterioitsuak

(tarteko izenburuak jartzeko)

Inguratzen gaituen airean ohiko kutsadura eta zarata ez ezik zerbait gehiago ere ba omen dago, psikofoniak esate baterako. Ahots ezezagunak eta ulergaitzak, nondik datozen ere ez dakigunak, horra hor psikofoniak. Bide batez, esan dezagun berauen inguruan aritzen den zientziari ere psikofonia deitzen zaiola. Hala ere, psikofoniak egitea edonoren esku omen dago, edonork grabatu omen ditzake, baita geroago deszifratzen saiatu ere.

1. _____

Parapsikologiaren mundutxoan dabilzan gehienek onartzen dute airean ahots misterioitsu ugari daudela, norenak diren eta nondik datozen ere jakin ez arren, grabatu eta entzun daitezkeenak.

Normalean, ez dira esaldi luzeak, hitz solteak edo oihuak baizik; gehienez ere, esaldi labur bat. Gainera, maiz ulergaitzak izaten dira. Grabatzeko zein entzuteko, kalitate oneko gailu elektronikoak erabiltzea gomendatzen bada ere, badirudi askotan kasete arruntak erabilia ere egin daitezkeela.

Gai honetako adituaren ustez, inoiz inork esandako hitzak dira psikofoniak. Teoria horren arabera, hitz egitean-eta, bibrazio bat sortzen da, eta bibrazio hori airean geratzen da betiko, "flotatzen" edo. Beraz, psikofoniaren bidez, inoiz esandako hitz, oihu eta zarata horiek grabatu eta interpreta daitezke, eta horretarako toki egokia aukeratzea ere garrantzitsua omen da. Hasteko, erabilitako hizkuntza identifikatu beharra dago, esanahia ulertzen saiatzeko. Ondoren, psikofoniam agertzen dena eta psikofonia "aurkitu" dugun lekua elkarrekin lotzen ahaleginduko gara, grabatutakoari interpretazio zehatza ematearren.

Sinesio Darnell Bartzelonako irakasle eta psikofonietan adituaren ustez, pertsona bakoitzak hiltzean indar edo energia berezia askatzen du. Indar horri pakete kuantikoa deitzen zaio, eta bertatik sortuko dira gerora grabaturiko psikofonietan agertuko zaizkigun ahots misterioitsu horiek.

Pakete kuantikoaren azalpena hauxe dugu: guk geure barnean izpiritu bat omen daukagu, baina izpiritu hori ez da gurea, naturan dago, eta ziklo bat osatzeko, jaiotzearekin batera, gure gorputzean sartzen da. Honez gain, arima ere ba omen daukagu, eta horrek ematen dio izpirituari berezko itxura.

2. _____

Hala omen da, arimak formarik gabeko izpiritua moldatzen omen du. Izan ere, izpiritua naturaren zikloen arabera mugitzen da, nonbaitetik dator eta berriro leku horretara itzuliko da. Bitarte horretan, izpiritua lurreratu egiten da, animalia edo pertsona baten gorputzean sartzeko, hots, bizitza emateko. Eta horrela ibiliko da ziklo osoa bete arte.

Dirudienez, hiltzen garenean, arima ez da erabat desagertzen, eta bere hondakinek, airean geratzen diren horiek beroriek, pakete kuantikoa osatzen dute. Hala ere, hondakinok ez dute multzo homogeneorik osatzen, eta, denbora pasa ahala, are gehiago zatitzen dira, airean zehar sakabanatuz. Zati horietan sortzen da psikofonietan entzuten duguna. Horrexegatik, psikofonietan hitz solteak-eta

entzun ditzakegu soilik, pakete kuantiko horren zatitxoak baino ez direlako. Eta arrazoi berberagatik zaila da oso psikofoniak interpretatzea, esanahia emango zien osotasuna galdurik dagoelako; hots, pakete kuantiko famatua apurturik dagoelako.

3. _____

Sinesio Darnellek arima eta izpirituaren arteko desberdintasuna hobeto azaltzearren, adibide hau jartzen du: "Pentsa dezagun botila bete ardo daukagula, botila hori hustutzen badugu, nahiz eta barruan dagoeneko ardorik ez izan, ardo horren usain eta zaporea geratuko da bertan. Izpiritua botilan zegoen ardo da, edatearen (bizitzearen) ondorioz desagertu dena."

Beraz, izpiritutik askatzen diren arimaren hondakin horiek, airean geratzen dira, barreiaturik, noraezean. Eta hondakin horien multzoa da pakete kuantikoa.

4. _____

Pakete kuantikoaren ezaugarri nagusietariko bat da erabat mugikorra dela eta leku batetik bestera ibiltzen dela airean zehar. Ideia hau Santo Tomasek berak defendatu zuen, esanez hildakoen arimak norberaren bizitzako gertaera garrantzitsuenak jazo ziren lekuetara itzultzen zirela. Iritzi horrekin bat egiten du Sinesio Darnellek goitik behera, berak ere sinesten baitu arima bizitzako gertaera garrantzitsuenen eskenatokira bueltatzen dela, bizitza hori berreskuratzerantz bultzatzen duen sentimenduari jarraiki.

Bestaldetik, antza denez, bat-bateko heriotza gertatzen denean (stripu batean, adibidez), pakete kuantikoa handiagoa da, zeren-eta bat-bateko heriotza gertatzen denean arimaren zati batzuk ez baitira heriotzaz jabetzen, eta pertsona bizirik balego bezala jarraitzen dute. Zatiok ere, jakina, airean geratzen dira, hiltzean askatzen den berezko pakete kuantikoari gehituz.

Beste arazo bat da —eta ez txikiena— nola bihurtzen den ahots pakete kuantikoa. Badirudi ezinezkoa dela arimaren zatiek bibrazioak sortzea eta bibrazioirik gabe ezinezkoa dela ahotsik egotea. Arazo hau konpontzeko, Sinesio Darnellek ondorengo planteamendu hau egiten du: bizitza arruntean bezala gertatzen da, hau da, guk hitz egiten dugunean, azken finean, geure barneko indarra bihurtzen dugu ahots. Horrela, bada, dimentsiorik gabeko eremu horretan antzekoa suertatzen bide da: hots, zati horiek oraindik ere barruan daukaten indar apurra ahots bilakatzen dutela. Gainera, bizitzakoa eta hil ostekoa ahots berbera ei da.

5. _____

Pertsona batek hil ostean ahots berbera ez ezik, hizkera berbera ere mantentzen omen du. Edo beste modu batez esanda, gure pakete kuantikoak guk bezalaxe egiten du berba. Hori frogatzeko, Bartzelonan agitutako kasu bat aipatzen du Darnellek. Bertako irakasle bat hil, eta, denbora gutxira, beste irakasle batek egin zituen psikofonietan haren ahotsa susmatu zuen. Hori baieztatzeko, laguna bizi zen artean egindako grabaketekin fonograma baten bidez parekatu zuen psikofonia (fonograma ahotsak parekatzeko eta

sailkatzeko sistema sofistikatua da). Bi ahotsak alderatu ostean, ahots berbera zela ondorioztatu zuen argiro. Horrela, erabat frogaturik dago bizitzako eta norberaren pakete kuantikoko ahotsa zein hizkera berberak direla.

6. _____

Bai, hala omen da. Sinesio Darnellen arabera, etorkizuna alde zurretik ezarrita dago, gu bertara noiz helduko garen zain. Gai honi irtenbide zientifikoa ematearren, zera proposatzen du Darnell irakasleak: gure barruan dauden eta pakete kuantikoa osatzen duten zati horiek geroaldira bidali ditzakegu, etorkizunean zer gertatuko zaigun "ikus" dezaten. Horren ostean, gure orainaldira itzultzen dira, eta gertatuko zaigunaren berri ematen digute. Hori guztia "premonizioa" delakoarekin (etorkizunaren aurreko ezagutza) loturik dago. Fenomeno horren baitan azaltzen dira hainbat gertaera historiko-erlijioso. Adibidez, Abraham eta Moisesek askotan entzuten zuten Jaungoikoaren ahotsa, baita horrela mezu eta aginduak jaso ere. Joana Ark-ekoa frantses emakume sainduak ere ahots bat entzuten zuen sarritan; besteak beste, Frantziaren askatasunaren alde ingelesez kontra borrokatzen bultzatu zuena.

7. _____

Psikofoniak egin ostean gauza bitxiak entzun ohi dira. Aipa dezagun berriro ere Darnelli berari Bartzelonan psikofoniak egiten ari zela gertatutakoa. Bera eta bere lankideak holako froga batzuk egiten ari zirenean, ulertzen ez zuten hizkuntza batean mintzo zen ahots bat agertu zitzairen. Hainbat kontsulta egin eta gero, jakin zuten hizkuntza ezezagun hura euskara zela eta ahots hark "bikain" esaten zuela.

Ez da hau gertatu zaion kasu xeble bakarra. Beste batean, orain dela 7000 urte desagertutako egiptoar hizkuntza batez egiten zuen ahots bat ere topatu zuen. Beraz, nahikoa normala omen da gutxien espero daitezkeen hizkuntzak psikofonietan agertzea: grekoa, armeniera, latina eta abar. Beste batzuetan agertzen diren hizkuntzak guztiz ezezagunak dira. Eta badaude erabat ulertezinak diren zarata eta soinu ugari ere.

Kasurik harrigarrietan badago psikofoniak entzutea grabagailurik erabiltzeke, baina, horretarako, leku oso berezia eta kontzentrazio ikaragarria behar dira. Esate baterako, badago orain dela 500 urte-edo hainbat lagun bahiturik egon ziren kobazulo bat; diotenez, bertara joanez gero eta asko kontzentratu ondoren, oraindik ere bahitu haien oihuak eta negarrak entzun litezke.

Amaitzeko, berriro ere lehen esandakoa gogoratu nahi dugu; hots, edonoren esku dagoela psikofoniak grabatzea. Horretarako, honako tresna hauek behar ditugu: ahalik eta kaseterik onena eta erabili gabeko zinta. Azken hau garrantzitsua da, zeren eta, zinta aurreko batean erabili bada, gerta baitaiteke alde zurretik grabatutakoa eta psikofoniakoa elkarrekin nahastea. Lekuak ere aproposa izan behar du; onenak eliza zaharrak eta, batez ere, kanposantuak izaten dira bi arrazoigatik: bata, isiltasun handia egon ohi delako horrelako tokietan; bestea, hildakoek askatu duten pakete kuantikoa inon baino gertuago dagoelako eta, beraz, leku errazena baita ahots misterioitsu horiek grabatzeko. Gainera, kanposantu handiak badira edota bertan jendea ehorzten jarraitzen bada, pakete kuantikoen kopurua handia izango da, ezinbestean.

X espedienteak

- MAIDER: Bueno, ba, gaur fantasma edo mamuei buruz hitz egitera nator, Xabier, baina ez fantasmak diren pertsoneri buruz, baizik eta benetako mamuei buruz. Zuk inoiz, Xabier, ikusi al duzu mamu bat?
- XABIER: Ikusi... ikusi ere ikusten al dira? Bai?
- MAIDER: Ba, bai. Zuk ikusi al duzu?
- XABIER: Nik txikitan amets egiten nuen mamuekin. Eta oso gaizki pasatzen nuen gainera, e! Pentsa, amaren ondoan sartu behar izaten nuen ohean... Baina ez, ez, ikusi, ikusi ez dut mamurik... —dakidala, behintzat—, ez dut mamurik ikusi.

X espedienteak

- MAIDER: Ba, fantasmen kontua, Xabier, ez da txantxa. Jende askori gertatu izan zaio, ba, inoiz fantasma bat ikusi duela, edo, behintzat, hori iruditu zaiola, edo, inkluso, fantasma horrekin hitz egin duela; eta, gero, egia da, ba, jende gehienak nahiago izaten duela inori ez kontatu, sekretupean gorde, zeren behin kontatuz gero, ba, bueno, horrelako istorioak kontatzen badituzu, badirudi zorrotzat hartzen zaituztela...
- XABIER: ...hau burutik eginda dago, eta.....
- MAIDER: ...hori da. Baina gaur ikusiko dugun kasua ezagutu ondoren, ba, ni konklusio batera iritsi naiz: naturaltasunez onartu beharko genuke fantasmen existentzia, eta, gainera, ez genieke beldurra izan behar. Izan ere, ez omen dute kalterik egiten. Egia da fantasmei buruz hitz egiterakoan, ba, beti hitz egiten dela oso tonu negatiboan, edo tonu beldurgarrian, baina, agian, fantasmen existentzia ezeztatzen gastatzen dugun energia hori, ba, hainbat galderaren erantzuna bilatzen gastatu beharko genuke. Adibidez: zergatik existitzen dira fantasmak? Edo, ez al da izango zerbait esan, edo komunikatu nahi digutela? Hau ez da nire erreflexioa, e!; ez da nik nire buruari egin diodan galdera, baizik eta Carlos Gil izeneko donostiarraren erreflexioa. Carlos Gili hamasei urterekin gutxi gorabehera sortu zitzaion mundu paranormalarekiko afizioa, eta, geroztik, bere denbora librean, eta, beti ere, bere kasa, bakarrik, ba, asko ikertu du mundu hau, bai psikofoniak eginez, bai liburuak irakurriz, eta afizio horrek, hain zuzen, 1981. urtean Donostiako Polloe hilerrira eraman zuen. Zertara? Argazki batzuk egitera joan zen, e, karrete edo negatibo infragorri batekin. Carlosek...
- XABIER: Egun argitan?
- MAIDER: Egun argitan, hori da. Carlosek aldizkari espezializatu batean irakurri zuen negatibo infragorriak sentsibilitate eta ahalmen berezia zuela. Nolabait esatearren, ba, giza begiak ezin ikusi zezakeena, ba, negatibo infragorriak ikusi zezakeela. Beraz, karretea bere argazki-kameran jarri zuen, eta hilerrira joatea erabaki zuen. Zergatik hilerrira? Ba, beno, fantasmak existitzekotan, berauek harrapatzeko tokirik aproposena hilerrira izan behar zuen, eta horregatik joan zen hara. Dena dela, berak ez zuen espero aterako zuen argazki horretan ezer berezirik aterako zitzaionik, baina, bere ezusterako, errebelatua jaso ondoren, berak ateratako bi argazkitan — bakarrik bi argazkitan—, forma arraro batzuk infiltratu zirela konturatu zen. Bi argazki misteriotsu dira, eta, gainera, bi argazki horiek hemen ditugu, Sorginen Laratzean, Carlosek utzi dizkigu, eta berehala ikusiko ditugu. Dena den, entzun dezagun Carlos Gilen ahotik zerekin egin zuen topo lehenengo argazki misteriotsu horretan. Entzun dezagun.
- CARLOS GIL: Argazkian izaki garden batzuk agertzen dira, sendotasun finkorik gabeak, burdina-hesi honetara itsatsita baleude bezala. Ikusezinak ziren, hori garbi utzi nahi dut, argazkia egin nuen unean ezin nituen ikusi. Errebelatzean agertu ziren. Errebelatuak hartu, eta zati konkretu honen anpliazioa eskatu nuen. Izan ere, argazkia heldu zitzaidanean gauza arraro bat igarri nuen. Bi buru edo bi lorontzi ikusten nituen. Anpliazioak iritsi zitzaizkidanean argi eta garbi ikusten zen: ez ziren bi lorontzi.
- MAIDER: Ez ziren bi lorontzi, baina... zer zen Carlosek argazki horretan sumatu zuen gauza arraroa? Argazkia oraintxe bertan ikusiko dugu, eta ea zuek zuen etxetik eta zuk Xabier ere, argazki horretan forma bereziren bat ikusten duzun. Pista bat emateko...

X espedienteak

- XABIER: ...hauek kolore bereziak...
- MAIDER: Bai, hori da infragorri negatiboak probokatzen duen itxura, ezta? Argazkiaren ezker aldean, e, dago gauza arraro hori, eta, beno, Carlosek bere eskuetan argazkia hartu zuenean zerbait arraroa sumatu zuen... eta pasillo horren ezker aldean ikusi daitezke forma arraro batzuk, susmagarri batzuk...
- XABIER: Horrela, gehiago hurbildu beharrik gabe ere ikus daitezke, Maider?
- MAIDER: Beno, ez da erreza, egia esan. Nik uste badaukagula beste toma... hurbilagoko toma bat, argazki hori anpliatuta... Hor dago.
- XABIER: Hor ikusten diren bi itzal beltz horiek izango lirateke? Bi buru daude.
- MAIDER: Horixe bera.
- XABIER: Gero, gorputzak bata bestearen aurrean baleude bezala.
- MAIDER: Bai, badirudi, badirudi... ba, bueno, pertsona bat bi bururekin, edo, edo... bi gorputz elkarrekin, eta, gero, buruak, e, desberdintzen direla... Koadro horretan, hain zuzen, horrek eman zion atentzioa Carlosi, eta, beno, ba, bera oso-oso harrিতuta geratu zen argazki honekin. Baina, zer da hori? Carlosen ustez, zer da hori? Ba, Carlosek, Carlos Gilek, interpretazio hau egiten du itzal horien gainean. Entzun dezagun Carlos Gilen ustez zer diren itzal horiek.
- CARLOS GIL: Bi pertsona daude. Nire ustez, edadetuak dira, zaharrak: gizona eta emakumea. Burdina-hesira itsatsita daude. Une hartan ni argazkia egiten ari nintzen lekura begira gutxi gorabehera, hau da, orain gauden lekutik hogeita zortzi bat metro atzera.
- MAIDER: Bueno, ba, badirudi bi pertsona zirela, bi mamu; hain zuzen ere, Carlosek argazkia atera zuenean, han ez zegoen ezertxo ere ez, eta bakarrik argazkian atera zen, eta...
- XABIER: Maider, zer gertatu zaizu?
- MAIDER: Aiba...
- XABIER: Neuri ere bai. Begira, begira, ze dotore nagoen traje txuriarekin.
- MAIDER: Kontrol aldetik fantasmaren bat infiltratu omen da edo... Dena dela, Carlosen kalkuluen arabera, hor argazkian ikusi ditugun mamu horiek, metro eta erdiko altuera zutela esaten du, baina ezin omen daitezke mamuen altuera exaktuki kalkulatu. Zergatik? Argazkia segundo-frakzio txiki batean egin zelako, hau da, milesima batzuetan, baina baliteke mamu horiek, ba, justu momentu horretan tamainaz handitzen, edota tamainaz txikitzen egotea...
- XABIER: Beraz, giza formakoak dira, edo jo dezagun hala direla, baina neurritz handitu eta txikitu egiten dira?
- MAIDER: Ba, bai, badaitezke (izan liteke), badaitezke hori horrela izatea. Hain zuzen, argazkia egin beharrean, ba, bideo-kamera batekin hartu izan balu irudia, ba, orduan, ikusi ahal izango genuke fantasma horiek handitzen edo txikitzen ari baziren.

X espedienteak

- MAIDER: Beno, hori da lehenengo argazki misterioitsua, baina badago bigarren bat. Bigarren argazki hau Polloen egin zuen ere bai Carlosek. Lehenengo argazkia egin zuen tokitik metro batzuetara, beste zonalde batean, eta esan behar da bigarren espektro edo mamu hau zegoen tokitik bera zegoen tokiraino —hau da, Carlos zegoen tokiraino—, ehun bat metro zeudela, gutxi gorabehera. Orain ikusten ari garen toki horretatik, hain zuzen, posizio horretatik atera zuen Carlosek argazkia. Beraz, guk kamera toki berean jarri genuen. Hori, gaur egungo irudi bat da, orain dela bi aste hartutako irudia, eta orain ikusiko dugu Carlosek egin zuen argazkia. Horixe da. Infragorriekin egindako argazkia da ere bai, horregatik dauka tonu hori, eta hor, hor zerbait arraroa dago.
- XABIER: Eskuinean?
- MAIDER: Eskuinean, hori da. Pixka bat ondo... begiratzuz gero, eta arboletara begiratzuz gero, forma begetal bat ikus daiteke. Pista bat ematekotan, buru bat da, burua eta sorbaldak. Zuk ikusten al duzu Xabier?
- XABIER: Bai. Orain irudiaren erdian dagoen hori?
- MAIDER: Justu. Orain irudiaren erdian eta pinuaren ondoan dagoen hori. Ba hori da bigarren argazki horretan agertzen zen mamua edo espektroa, baina entzun dezagun Carlosi atentziora eman zion argazki honetan. Hor daukagu.
- CARLOS GIL: Antzitrearen eskuinaldean, nire atzealdean dagoen honen eskuinaldean, garezur antzeko bat ikus dezakegu, burezur bat. Barrezka ari da, ahoa irekita duela. Argazki honek badu gauza bitxi bat: garezur hori ez da inoiz ere existitu. Hor lehen ikusi ahal izan duguna besterik ez zegoen: 15-20ren bat metro atzerago dagoen hilobi bateko hilarriaren goialdean dauden kiribildutako belar batzuk, zuhaitz-adar batzuk, alegia. Tira, ba, argazkia egindako unean, belar-multzo horrek burezur irribarretsu baten itxura hartu zuen.
- MAIDER: Ba, horixe, Xabier, kalabera irribarretsu baten forma hartu zuen bat-batean hilarri horrek.
- XABIER: Nik irribarrerik ez diot sumatu, baina argazkia atera zionak berak sumatzen baldin badu, niri ez lidake batere graziaz egingo, e?
- MAIDER: Kalabera bat zuri barrezka dagoela konturatzea... bai, niri ere ez litzaidake gehiegi gustatuko, badaezpada ere, ezta? Ba, bai, hor kalabera norbaiti barrezka ari zaiola ikusten da, eta Carlosi horixe bera galdetu nion: "zure ustez, nori egiten ari zaio barre?" , eta hau erantzun zidan....
- MAIDER: Nori egiten ari zaio barre? Zuri?
- CARLOS GIL: Zoritxarrez, niri egiten didan susmoa daukat, eta ez dit inongo graziaz egiten; izan ere, irribarre hori pikaro eta mingarria artekoa baita, eta niri burezur begetal batek egindako irribarre horiek, neska, ba, ez zaizkit batere gustatzen, baina tira! Gai hauetan sartuta nagoenez, onerako eta txarrerako egon behar. Ez daukat beste aukerarik.
- MAIDER: Ba, bueno, zuri ez litzaidake gustatuko, eta Carlosi ere, ba, ez zion grazia gehiegirik egin kalabera berari barrezka ari zitzaizola ikustea, ezta? Dena dela, berak argi dauka ez diegula fantasma eta espektro hauei beldurra izan behar. Hori bai, errespetua bai, errespetua bai. Zergatik? Ba, ez dakigulako oso ziur zer diren eta zergatik adierazten duten beraien existentzia, ba, psikofonia eta argazki edo bestelako medio batzuen bitartez. Beraz, badaezpada ere, horrelako gauzak agertzen direnean, errespetuz tratatzen jakin behar dugula esaten dute.

X espedienteak

- XABIER: Beraz, hamasei urte zituenetik ari da horrelako gauzak ikertzen Carlos, ja (jadanik) ez da hemezortziko mutil koskorra ere, urte pilo bat darama horretan, eta bera ziur dago horrelako kontuak ez direla asmakizun hutsak.
- MAIDER: Ez. Carlos guztiz konbentzituta dago gauza hauek existitzen direla, gu ez gaudela bakarrik mundu honetan, eta, gainera, ziur dago, ere bai, bizitzaren ostean, heriotzaren ostean, barkatu, beste bizitza-mota bat dagoela. Carlosek erreflexio hau egiten du bizitzaren osteko bizitza horri buruz.
- CARLOS GIL: Nire ustez, heriotzaren ondoren bizitza dago. Erabat ziur nago. Nik uste dut erlijioa alde batera utzita bizitzak ez lukeela zentzu handirik edukiko familia pobre batean jaiotako pertsona batentzat, gosea pasatzen duenarentzat edo hala moduz hiltzen denarentzat. Zer zentzu dauka bizitzak horrelako pertsona batentzat? Ba, jaio ez balitz, hobe. Zerbait egon behar da, argi eta garbi, txanponaren beste aldea, ez dakit, bidegabekeriak, injustiziak eta mundu honetan bizi izandakoak justifikatuko dituen. Ni guztiz ziur nago. Luzea da orain eta hemen azaltzeko, baina ziur nago beste bizitza bat dagoela heriotzaren ondoren. Erabat ziur.
- XABIER: Beraz, hemen gabezia, ezina eta samina besterik izan ez dutenei... nolabait esateko, beste bizimodu batean egingo litzaieke justizia edo emango litzaieke hemen izan ez dutena.
- MAIDER: Hori da, behintzat, Carlosek uste duena. Zuk Xabier, sinesten duzu bizitza... heriotzaren osteko bizitzan, edo gustatuko litzaizuke beti ere, ba, ez dakit, ez, bizirik irautea fantasma itxuran edo espektro baten forman edo... zer?
- XABIER: Nik ez dakit gero zer izango den, baina balitz ere, nik bestelako zerbait imajinatu nahi nuke.
- MAIDER: Bai, zerbait erosoagoa, agradableagoa igual, ezta?

X espedienteak

MAIDER: Bueno, lehen esan dugu ere Carlosek psikofoniak egiteko ohitura baduela, eta bere etxean, ba, psikofonia pila bat omen ditu gordeak. Nik eskatu nion, ba, ea bere psikofonia artxibo horretatik bateren bat utziko zidan, eta honako hau esan zidan: "gehienak oso beldurgarriak dira ,eta, beraz, normalenatariko bat utziko dizut", gehiegi ez inpresionatzeko edo beldurrik ez pasatzeko. Oso psikofonia kuriozosa pasatu zidan, utzi zidan, eta psikofonia honen bitartez ikusten dugu nola fantasma edo izpirituek badakiten ere bai irainak esaten edo irainak botatzen. Egoera honako hau da, psikofonia egin zuen egunekoa: Carlos Zugarramurdira joan zen psikofonia egitera; berak bazekien, ba, bueno, han Zugarramurdi inguruan, ba, sorginak direla eta ez direla, ba, toki aproposa izan zitekeela psikofonia bat egiteko, eta izpirituren bat erreflejatze (azaltzeko) psikofonia horretan. Bakarrik joan zen hara eta mikroa harri batean apoiatu (jarri) zuen, eta magnetofonia martxan jarri zuen. Zain geratu zen minutu batzuetan Carlos. Bat-batean, han bakar-bakarrik zegoela, bikote bat agertu zen bera zegoen tokitik pasioan zebiltzala, maiteminduta, eskutik ebatuta zihoan bikote hori, eta elkarri muxu bat eman zioten ezpainetan. Carlosek hori ikusi zuen. Bitartean, magnetofoniak martxan jarraitzen zuen zerbait grabatzen, ezta?

XABIER: Berak entzun, ezer ez zuen entzun, ezta?

MAIDER: Ez, berak ez zuen ezer entzun. Bakarrik bikote bat handik zebilela ikusi zuen, eta elkarri musu bat eman ziotela ikusi zuen. Sei bat minutu pasatu ondoren, Carlosek zinta geratu zuen, eta, ondoren, etxera bueltatu zen, eta berak grabatutako zinta hori, ba, bere etxeko soinu-ekipoan sartu zuen, kaskoak jantzi zituen, eta prest zegoen Zugarramurdi grabatutako hori entzuteko. Kaskoak jantzi, play-ari eman, eta hara! Zerbait arraroa entzuten zen psikofonia horretan, eta, hain zuzen ere, psikofonia hori hemen daukagu, ez da oso psikofonia argia, eta, agian, ba, soinua edo hor entzuten den hori galdu egingo da platoan, baina ea etxetik zerbait desberdintzeko gai zareten. Oraintxe bertan entzungo dugu psikofonia hori, eta, hori bai, izpiritu horrek irainen bat botatzen duen edo ea igartzen duzen...

(psikofonia)

XABIER: Hor ahots bat entzuten da, baina ez da oso argia.

MAIDER: Bai. Ea, berriz entzuterik ba al dago, mesedez?

(psikofonia)

X espedienteak

- MAIDER: Beno, zarata handia entzuten da, eta, gero, hor zerbait, bokal batzuk, "ua" horrelako zerbait. Zuk zerbait igarri duzu?
- XABIER: Nik hor ez dut ezer nabarmendu.
(psikofonia)
- MAIDER: Beno, berriz ere entzun dugu. Beno, nik esango dizuet, bueno, Carlosek, behintzat, hala uste du, psikofonia horretan entzuten den hitza edo iraina "puta" omen da, eta izpiritu horrek esan zuena hori zen, eta Carlosek uste du, ba, bikote hartako neskari zuzenduta zihoala irain hori. Antza, izpirituak ba omen zekien neska hori ez zela fidela bere mutilarekin, eta, ba, irain hori bota zion. Ze iruditzen zaizu istorio hori?
- XABIER: Fantasma lotsagabe galanta zela.
- MAIDER: Ba, bai. Eskerrak mutilak ez ziola entzun, edo neskak berak ez zuela entzun ze... en fin. Argazkiak ikusi, eta psikofonia hau entzun eta gero, ba, badirudi Carlosen ustez, behintzat, ba, mundu honetan ez gaudela bakarrik. Carlos, behintzat, konbentzituta dago gizakiaren munduaz gain beste mundu inteligente bat badagoela ere bai. Hau da berak ideia honen inguruan egiten duen erreflexioa...
- CARLOS GIL: Oro har, nik esango nuke psikofoniek zerbait adierazi nahi digutela, ez gaudela bakarrik, akaso. Baina, bizitza inteligenteari buruz hitz egiten dugunean normalena gora begiratu, eta hurreneko galaxia batean pentsatzea da. Agian, psikofonia hauek esan nahi digutena da bizitza inteligente hori askoz hurbilago dugula, ez dugula gora begiratu behar, baizik eta hona, behera, begiratu behar dugula. Agian, gugandik oso gertu daude, ikusi ezin baditugu ere.
- MAIDER: Bueno, ba, mezu horrekin geratuko gara, ezta? Ba, agian, gugandik oso hurbil, hementxe bertan platoan gure artean, publiko artean, ba, izpirituak, mamuak daudela eta ez dugula zertan beldurrik izan behar, Xabier.
- XABIER: ...
- MAIDER: Hori da. Lagunak izan daitezela eta gure artean egon daitezela, baina, badaezpada, ere, ba, bueno, ezer egin gabe, hor kieto.


Gertaera-fitxak

X espedienteak

- MAIDER: Eta alde egin baino lehen gogoratzen duzu Otxate? Otxateko herri madarikatua?
- XABIER: Bai, jakina. Trebiñoko herri madarikatua.
- MAIDER: Hori da. Ba, herri madarikatuari buruzko azken albiste bat heldu zaigu gaur, eta horixe bera hitz gutxitan kontatu nahi nuke, Xabier. Orain dela aste pare bat, Lizarrako gazte-talde bat Otxaten egon zen gaua pasatzen, eta badakizu herri abandonatu hori, Xabier, bueno, ehunka gertakariren topaleku izan dela eta leienda (elezahar) asko kontatzen dela bertan gertatutakoari buruz. Ba, gazte hauek han zeudela hainbat gauza arraro gertatu omen zitzairen. Alde batetik, telefono mugikorra bat-batean bateriarik gabe geratu zen. Hau normala litzateke, zeren batzuetan gertatzen da, ezta?, telefonoa bateriarik gabe geratzen dela. Baina lagun hauek, justu, bateria kargatu zuten, eta, bueno, gau osoa han pasatu behar zuten; beraz, telefonoaren bateria guztiz beteta zeukaten, eta hara heldu bezain laster, bat-batean, telefono mugikorraren bateria gastatu egin zen. Bestalde, beraiek kontatu didate argazki-kamera bat erabiltzen ari zirela, infragorriekin, gainera, jarri zuten karretea, eta hogeita hamasei argazkiko karretea zen, eta argazkiak ateratzen ari zirela, ba, justu, seigarren argazkia egitera zihoazela, karretea bere kabuz errebobinatzen hasi zen. Kamera berria zen, sekula problemarik eman ez zuen kamera, eta seigarren argazkian, bat-batean, inork ez daki...
- XABIER: ...errebobinatzen hasi zen...
- MAIDER: ...errebobinatzen hasi zen. Kontuan eduki sei zenbakia deabruaren zenbakia dela. Eta azkenengo anekdota (pasadizoa): linternekin joan ziren, gaua baitzen han, han ez dago ez farolarik, ez argirik, ez ezer, eta linternak eraman zituzten. Horietako batzuk ez zituzten erabili, eta horietako bat motxilan gorde zuten. Hurrengo egunean, linterna hartzera zihoazela, hara beraien sorpresa: hartu eta pilak guztiz ugertuta zeudela konturatu ziren! Zer gertatu zen? Zeren ondorioz izan zen guzti hori? Ba, ez dakit, baina kasualitatea da Otxaten gertatu izana. Ba, hori da Otxateri buruzko azken albistea.
- XABIER: Otxaten eta duela pare bat aste, esan duzun moduan.
- MAIDER: Bai, eta horrek konfirmatzen du, eta indarra ematen dio Otxateri, ba, bueno, ba, leienda (elezahar) hori oraindik ere hor bizirik dagoela eta zerbait arraroa gertatzen dela hor, Xabier. Hauxe da guztia.
- XABIER: Tira, tira. Ba, fantasma eta izpiritu-kontu horiek guztiak ekarri dizkiguzu gaur, Maider. Ba, tira, eskerrik asko, eta orain zoaz zeure kristalezko begi horiekin eta zure espirituarekin. Gabon pasa!

Komikia: Otxaten gau bat

OTXATEN GAU BAT





OTXATEN GAU BAT ipuina

Unai artzaina zen, eta egunero ibiltzen zen bere artaldearekin belar bila Gasteizko mendietan zehar. Urte hura oso lehorra izan zen, ordea, eta udazkeneko egun batean urrunago joatea erabaki zuen, ardiek belar goxoa bazka zezaten.

Otxate aldera abiatu zen artaldearekin, baina etxera itzultzeko unea iritsi zenean konturatu zen bere arkumerik kuttunena ez zegoela. Arkume haren ama erditzean hil zen, eta ordutik semetzat hartu zuen Unaik eta asko maite zuen. Beraz, ezin zuen arkumerik (Dolli) gabe alde egin; gainera, Otxatetik hurbil zegoen, eta, ziotenez, herri hartan gauza arraroak gertatzen ziren.

Azken hori zela-eta, beldurrak jota, Dolli leku misteriotsu hartan ez uztea pentsatu zuen; gainera, beharrezkoa izanez gero, han pasako zuen gaua. Orduan, Pintxe bere txakurraren laguntzaz, artaldea elkartu zuen, eta Otxaterantz jo zuen. Iluntzen ari zen, eta hotz egiten zuen; bat-batean, tximinia bateko kea ikustean alaitu egin zen, eta presaka, artaldea Pintxen zaintzapean utzita, etxe hartara joan zen. Ondoan dorre handi bat zegoen. Etxean sartzean zeraz konturatu zen: suak, besterik gabe, hots, inork egurra bota gabe, irauten zuela, inoiz itzali gabe; are gehiago, denbora osoan sugar handia mantentzen zuen. Bestalde, kanpoan ahotsak entzuten ziren. Hala ere, Pintxek lasai egiten zuen lo, ez baitzen zaunkarik entzuten, beraz, ez zegoen kezkatzeko arrazoirik. Dena den, beldurrez eta kostata, kanpoan zegoen edonori ea Dolli ikusi zuen galdetu beharko ziola pentsatu zuen. Horregatik, atea ireki zuen. Kanpoan ez zen ezer ikusten, ilun eta lainotsu baitzegoen; ahotsak eta zaratak, berriz, hantxe bertan zeudela ematen zuen. Ez zen esaten zutena ulertzen; baina Unaik oihuka galdetu zuen ea norbaitek arkume bat ikusi zuen. Bat-batean ahots guztiak desagertu egin ziren, ez zuen erantzunik jaso; orduan, berriro egin zuen galdera bera, ozenkiago oihukatuz, eta orain bai, ahots garbi batek baietz esan zion, arkumea beraiekin zegoela, beraien herrira joan zela, eta, behe-laino artean dorrean sartu zenez, orain ezin zela atera. Ateratzeko modu bakarra mendian zegoen harri arteko zulo batetik zela esan zioten Unairi. Egun batzuetan leku hartatik bat-batean ura ateratzen zela ere esan zioten.

Hori entzutean, kontu hark urarekin zerikusia zuela ohartuta, erreka baten bila joan zen. Ibili eta ibili, erreka betetako leku bat aurkitu zuen. Erreka haien guztien barruan eta ertzetan, batean izan ezik, animalia asko zeudela konturatu zen. Une hartan, erreka hura kanpora joango zela pentsatu zuen, bestela beste erreketan zeuden animaliek Otxateko lurretatik hanka egingo baitzuten. Dolli animalia haien artean ikusi, besoetan hartu, eta animaliarik gabeko errekarera eramane zuen, ezertan pentsatu gabe. Ura, oharkabean, harrotu egin zen, eta biak eroan zituen errekan zehar. Unairen ustez, uretan denbora luzea eman ostean, azkenean, ur-jauzi batean egongo balira bezala, mendian agertu ziren, aipatutako zuloaren ondoan. Zelako ustekabea hartu zuen Unaik Pintxe eta artaldea hantxe, euren zain, ikusi zituenean!. Denak pozik, korrika alde egin zuten.

Unaik, azkenean, zoriontsu, Otxateren misterioa aurkitu zuen; baina ez da inoiz, nahiz eta betiko larretan belarrik ez egon, Otxate aldera itzuliko.

Horrela bada, ez bada, sar nadila kalabazan, eta irten nadila Otxateko errekan.

ELENA ORTIZ DE URBINA

(AEKren TREBIÑOKO GAU ESKOLA)

AIZU! aldizkaria, 234. zenbakia (22. eta 23.orr.)

Goazen Otxatera!

- Aizu, Asier, zergatik ez gara joaten Otxatera asteburu honetan?
- Otxatera asteburu honetan? Baina, badakizu zer dagoen han?
- Baina, ez dakit, plan desberdin bat izan daiteke, esperientzia berri bat...
- Baina Otxatera esaten ari zara, e, mamuak dauden herri horretara, e, ejertzitoak hainbeste arazo izan dituen herri horretara, e...
- Zu eta zure mamuak!
- Hor... frogak badaude, grabazioak badaude eta gauza asko ikusi ditu jendeak eta hor badakigu zerbait badagoela. Ni, badaezpada, ni horra ez noa. Egunez, agian, ausartuko naiz, baina... egunez ez delako ezer gertatuko, baina gauez ni ez noa, inola ere ez!
- Baina, begira, nik ezagutzen dut jendea han egon dena, eta inori ez zaio ezer gertatu.
- Oraingo! Oraindik inori ez zaio ezer gertatu, baina, hor mamuak baldin badaude, noizbait zerbait gertatuko da, disgustu handiren bat izango dugu, eta... eta ez, ez! Ni ez noa! Ezta pentsatu ere!
- Ba, orduan, beste norbait bilatu beharko dut, baina, dena dela, egunez etorriko zinateke?
- Bai, bai, bai. Egunez joango naiz, eta gauean zuek bakar-bakarrik gelditu.
- Ondo da.

X espedienteak

- XABIER: Zer dakarzu, Maider?
- MAIDER: Ba, gaur oso gai serio dakart. Egia esan, bueno, beti hemen tratatzen ditugun gaiak, ba, serioak dira, baina nik esango nuke gaurkoa bereziki serioa dela, Xabier. Nik ez dakit gure ikus-entzuleek inoiz ezer entzun duten "ouija" izeneko taulari buruz. Zuk zeuk, Xabier?
- XABIER: Tira, zer den badakit, zer den badakit...
- MAIDER: Esan dezagun...
- XABIER: ...eta jolas pixka bat ere egina naiz horrekin.
- MAIDER: Ba, kontuz horrekin. Esan dezagun, batez ere, ba, ouija taulari buruz ezer ez dakitenentzat, ouija taula mundu honetatik kanpo dauden energiekin harremanetan jartzeko metodo bat dela. Energia horiek, argi geratu dadin, ba, hildako pertsonen izpirituak lirateke, edota, inkluso, extraterrestreak ere bai. Espiritismoa egiteko erabiltzen den metodorik zabalduena eta, ba, bueno, ohikoena da. Eta, batzuek, ouija taulari "hildakoen telegrafoa" ere deitzen diote. Ba, gaur, ouijaren sekretu, gorabehera eta, batez ere, arriskuei buruz hitz egingo dugu, eta zeri buruz hitz egiten ari garen jakin dezagun, ba, hona hemen ouija taula bat. Hementxe, mahai gainean jarriko dugu... Ikusten duzue, bueno, hau ouija taula bat da, bueno, badaezpada ere, kenduko dut basoa hemendik... Ouija taula, egia esan, oso-oso gauza sinplea da, ezta? Abezedario osoa dauka taularen bueltan, zenbakiak batetik zerora, "bai" eta "ez" hitzak, "agur", edo "adios", kasu honetan, hitza, sesioa (saioa) amaitu behar denerako, eta, baita ere, esaldi batzuk; adibidez, hemen "no lo sé" eta "pregunta mejor" deritzoten esaldiak, ba, ouija sesioa (saioa) aurrera doan ahala, ba, galderak gaizki egiten badira eta abar, ba, berriz ere errepikatzeke.
- XABIER: ...ulertu ez baldin badu-edo....
- MAIDER: ...hori da. Bueno, ba, gauza sinple honekin espiritismoa egiten da, eta, gainera, uste duguna baino maizago. Dena dela, ez pentsa ouija tablero bakar hau dagoenik gure gizartean, ezta? Ouija tablero (taula) modelo asko daudela esan behar da. Batzuk sinpleagoak dira, beste batzuk apurtxo bat konplikatagoak, eta, bueno, berehala iruditxo batzuk ikusiko ditugu, ouija tablero (taula) desberdinen irudi batzuk... Hor daukagu, ba, hementxe mahai gainean daukagunaren berdina; beste hau, ba, pixkatxo bat, ba, konplikatagoa litzateke, informazio gehiagorekin, eta, tira, merkatuan oso modu errazean, edozein dendatan, liburutegitan, lortu daitezke horrelako tableroak (taulak). Hor iruditan daukagun hori, hain zuzen, oso sinplea zen; izan ere, eskuz ere egin daitezke, egin daitezke.
- XABIER: ...hau ere bai...
- MAIDER: Bai, hau ere borobila, forma borobilekoa, eta...
- XABIER: ...eta nornahik egin dezake horrelako bat folio zuri batekin...
- MAIDER: ...hori da. Folio bat hartu, eta, ba, eskuz, boligrafo batekin, arkatz batekin, abezedarioa idatzi, eta zenbakiak jarriz gero, ba, horrek ere balio izango luke izpirituarekin edo energia ezezagun horiekin harremanetan jartzeko. Halaxe da.
- XABIER: Tira, tira. Baina zuk benetan pentsatzen duzu, Maider, jendeak ouija taula hau erabiltzen duela izpirituarekin elkarriketak izateko eta... eta harremanetan jartzeko?
- MAIDER: Bai. Erabiltzen da, eta lehen esan dugu uste baino gehiago erabiltzen dela. Eta ez bakarrik esoterista edo mundu horretan ibiltzen diren profesionalen artean. Zoritxarrez, gure gizarteko, Euskal Herriko bertako, ba, bueno, gazteak, gaztetxoak, nerabeak ere erabiltzen dute, eta, ba, egia esan,

nahiko ezjakintasunean, ezta? Gauza handirik jakin gabe tablero (taula) honek dakartzan arriskuei buruz.

XABIER: Lehen esan dut neu ere jolas pixka bat egindakoa naizela, eta, hain zuzen ere, gaztetxo nintzen garaian egin genuen jolas, taldetxo batean, eta ziurta dezaket, ba, basoa mugitu zitzaigula, esan dezadan. Ez dakit geuk geure indarrez mugitu genuen, edo nork eta nola mugitu zuen, baina basoa mugitzen zen, eta erantzunak izaten genituen.

MAIDER: Beraz, nolabait, kurioseatu (aztertu) duzu mundu horretan, ezta, Xabier?

XABIER: Hori da.

MAIDER: Ni, behintzat, egia esan, inoiz ez naiz ibili, ez? Jende asko ibili da; gaztetan, batez ere, ba, pixka bat tonteatzeagatik (txoroarena egiteagatik), ezta? Ni neu ez naiz ibili, baina, egia da, ezagutzen dut ibili den jendea, eta esaten du baietz, e!, basoa mugitu egiten dela, eta konfiantzazko jendea da. Beraz, nolabait, egia omen da, ezta? Dena dela, ni gauza hauetan jakituna ez naizenez, ba, profesional batengana jo dugu ouijaren sekretuak eta ezaugarriak ahalik eta ondoen ezagutzeko. Pertsona honek Jose Manuel Duran du izena, eta Bizkaian bizi da; hain zuzen ere, Atxondo herrian. Bere etxera jo genuen berarekin egotera, eta, hain zuzen, irudietan daukauen gazte hau da Jose Manuel Duran. Berak afizio (zaletasun) moduan mundu paranormala ikertzen du, eta SEIP elkartearen ikerlaria da. Elkarte honek estatu-mailan funtzionatzen du, oso elkarte serioa da, eta bere siglak "sociedad española de investigaciones parapsicológicas" esan nahi du. Elkarte honek ikerlari bana du estatuko probintzi bakoitzean, eta Jose Manuel Bizkaiko ikerlari edo delegatua da. Tira, ba, berarekin egon ginen, bere etxean, ouija taulari buruz hitz egiteko; izan ere, ba, berak ikerketa-liburu bat idatzi berri du ouijari buruz, eta liburu horretan Euskal Herriko adoleszenteek (nerabeeek) egindako laurehun ouija esperientzia bildu ditu. Berarekin izan genuen elkarrizketa interesgarriaren ondoren, ba, bertatik atera genuen ondorioa honako hau da: ouija taula ez da joko bat, oso-oso arriskutsua da, eta ez da inorentzat gomendagarria. Tira, ba, lehen esan dugu ouija taularen bitartez jendea izpirituekin edo energia ezezagun batzuekin harremanetan jartzen dela. Dena dela, ze puntura arte da egia? Hau da, ouija taularen bitartez manifestatzen (agertzen) den hori izpiritu bat da, edo beste zerbait izan daiteke? Ba, galdera hori egin genion Jose Manuel Durani.

JOSE MANUEL DURAN: Erantzun asko izan ditzake galdera horrek. Zenbaitetan izpiritua, edo alienigenak, edo subkontzientea izan daiteke. Gehienetan, ez dira ez subkontzientea, ez alienigenak izaten. Izpirituak izan direla pentsatzea sinesgaitz egiten zait. Kasu askotan, giza adimenak sortutako fenomeno dela pentsa genezake. Baina, era berean, konbentzitura nago ez dela beti giza adimena izaten fenomeno hori sortzen duena. Zerbait gehiago dagoela uste dut, ez dakit zer den, baina badago beste zerbait hor dagoena eta agertzera iritsi daitekeena: izpiritu, alienigena, gnomo edo fikziozko zein ipuinetako pertsonaiaren baten identitatea hartzen duena.

MAIDER: Tira, ba, entzun duzue: Jose Manuelen ustez, kasu gehienetan, gu geu gara, gure adimenaren bitartez, eta adimen horrek duen energiaren bitartez, ba, "master" deritzon hau mugitzen duena. Beraz, manifestatzen (azaltzen) den hori gure alde ezkutua litzateke. Harrigarria da, baina hala da, pertsona guztiok omen daukagu alde ezkutu bat, eta hori da ouija taularen bitartez azaleratzen den hori. Beste era batean esateko, ba, zerebroaren (burmuinaren) kaparik (geruzarik) sakonengan dagoen informazio hori atera egiten da, eta subkontzientetik kontzientera pasatzen da ouija taularen bitartez. Harrigarria da.

XABIER: Dena den, Duranek berak esan du beti-beti ez dela giza adimena izaten mugimendu horren sortzaile.

MAIDER: Hori ere egia da. Jose Manuelek esan zigun kasu gehienetan giza adimena izaten dela azaleratzen den hori, baina lortutako komunikazioen portzentaia

txiki batean ezin da zehaztu zerk eragiten duen basotxoaren edo masterraren mugimendua.

XABIER: Eta nolabait bereizi al daiteke gure subkontzientearen eta giza adimenaren indarra den mugimendu hori sortarazten duena eta bestelako indarren batek sortarazten duena?

MAIDER: Bai. Eta hori nola egiten da? Ba, ouijak ematen dizkigun erantzunak aztertuz. Adibidez, batzuetan geratzen da, ba, ouija sesio (saio) baten ondoren lortutako informazioa, ba, bat datorrela sesio (saio) horretan parte hartu duen pertsona batek bizi izandako esperientzia batekin, hau da, ouijatik atera duen informazioabatek esaten du "baina, bueno, nik informazio hau banekien". Kasu honetan konprobatzen da, ba, bueno, pertsona horren subkontzientea izan dela ouijara atera dena. Baina kuriosoa da beste batzuetan gertatzen dena: elkar ezagutzen ez duten, adibidez, bi pertsona, bakoitza bere aldetik, bere taldearekin, ouija sesio (saio) bat egin, eta bi talde hauei informazio berbera ateratzen zaie, izpiritu, energia, ente (izaki) berbera ateratzen zaie, eta informazio bat ematen die. Informazio hori guztiz arrotza da pertsona hauendako. Konprobatzen dute beraiek ez zekitelara inondik inora ere informazio hori, eta, bueno, ba, kasu horretan ezin zaio jatorri arrazionalik, logikorik, terrenalik (lurtarrik) aurkitu informazio horri, ez? Eta hori litzateke konprobatzeko modua, ezta? Dena dela, ouijari buruz hitz egiteko orduan guztiz beharrezkoa da, ba, berau erabiltzeak dakartzan arriskuak, hau oso garrantzitsua da, arriskuak aipatzea. Arriskutsua al da taula simple hau erabiltzea? Ba, badirudi baietz. Entzun dezagun zer dioen Jose Manuelek.

JOSE MANUEL DURAN: Arriskutsua den? Noski, arriskutsua da, edo izatera iritsi daiteke, behintzat. Normalean, ez da ezer gertatzen, baina, zenbaitetan, pertsonengan eragin psikologiko handia izan dezake. Nik jasotako esperientzia batzuetan ouijak bere buruaz beste egiteko edo leihotik salto egiteko esaten zien, eta ez dute egin, noski. Baina badaude kasu bitxi batzuk: adibidez, semea galdu duen familia. Ama semearekin harremanetan jartzen saiatu da. Teorian komunikatzea lortu du, eta semeak "ederki nago hemen baina faltan sumatzen zaitut. Zatoz nirekin" esaten diola-eta, ama bere buruaz beste egiten saiatu da, horrela semearekin elkartu ahal izateko. Beraz, segun-eta zein den gure egoera emozionala, ouija arriskutsua izan daiteke ala ez.

MAIDER: Beraz, Xabier, arriskutsua da, baina neurri batean. Hau da, ouijak esaten dizun guzti-guztia sinesten baduzu... akabo.

XABIER: Norberaren nortasunaren arabera izan daiteke hori.

MAIDER: Hori bai. Gainera, Jose Manuelek esan zigun ouija taulak esaten duen guztia gehien-gehienetan gezur hutsa izaten dela, ez zaiola...

XABIER: ...gezurtia izpiritua...

MAIDER: ...gezurtia. Izaten da informazio bat ezin konprobatu daitekeena, benetako datuekin, errealitatean ezagutzen ditugun datuekin koinziditzen (bat egiten) ez duena; beraz, ez zaiola kasurik egin behar. Eta, hain zuzen ere, gaztetxoaren artean erabilpen hau arriskutsuagoa da, ba, hamahiru, hamalau, hamabost, hamasei urteko gaztetxoek, ba, bueno... gaztetxoak askoz ere eragingarriagoak direlako, eta, ba, esaten zaizkien gauzak sinesteko erraztasun gehiago daukatelako... Beraz, ouija taularen biktima izateko boleto (txartel) gehien daukatenak dira gazteak. Eta, gainera, beraiek dira ouija taula gehien erabiltzen dutenak. Jose Manuel Durani esan genion, ba, bueno, ea adoleszenteen, nerabeen artean, ze arrisku zeuden, eta hauxe kontatu zigun.

JOSE MANUEL DURAN: Ni nerabeei gertatutako lauhun esperientzia inguru jasotzera iritsi naiz, eta, gehienetan, gezurrak edo mehatxuak daude. Neska-mutilek ez dakite hori, eta izpirituak direla uste izan dute. Edalontzia mugitzen denean izpiritua hizketan ari zaiela pentsatzen dute. Ziur daude izpirituak direla, eta ez da egia. Et,a orduan, berdin da nolakoa den pertsona, sinesmen horrek independentzia hartzen du, eta ez dakit nola demontre lortzen duen, baina

norbere kontra jartzen da. "Alde egiten baduzu, akabatu egingo zaitut", edo "zure bila noa" bezalako komunikazioak jasoz gero, onena kasurik ez egitea eta irribarre egitea da. Beldurtzen bagara, orduan, hasiko da arazoa. Ouija egin duten bospasei mutilen esperientziak ditugu. Mehatxatu egin dituzte. Guztiek barre egin dute, batek izan ezik, eta bat hori izan da txarto pasatu duena. Zergatik? Agian, psikologikoki ahulena izan eta serioegi hartu duelako kontua, eta hau denbora-pasa da, ez jolasa; merezi ez duen denbora-pasa.

MAIDER: Bueno, ba, argiago ezin zuen esan...

XABIER: Hainbeste esperientzi izan eta gero, ondorio horretara iritsi da: merezi ez duen denbora-pasa.

MAIDER: Horixe. Merezi ez duen denbora-pasa da hau: ouija taula. Dena dela, jendeak, badakigu oso modu arinean eta friboloan (ergelean) erabiltzen duela ouija, kontuan izan gabe edo hartu gabe tablak dituen arriskuak, ezta? Eta ouijaren erabilpen fribolo (arin) honen harira, anekdotatxo (pasadizo txiki bat) bat kontatzea gustatuko litzaidake, Xabier. Irudi bat ikusiko dugu orain. Irudi hori "Pans & Company" izeneko ogitarteko etxeak atera zuen ouija taula batena da, eta, hain zuzen ere, jendea ogitarteko baten bila zihoanean, "Pans & Company" etxe horretara, kate horretara, ba, bandejatxo (azpil) modura ouija taula ematen zizuten. Eta, bueno, ba al da modu errazagorik gazteak gonbidatzeko gauza horietan sartzerara, ez?

XABIER: Gainera, kate horren bezeroak, neurri handi batean, behintzat, gazteak eta... asko gaztetxoak dira.

MAIDER: Hori da. Bokadilo (ogitarteko) merkeak saltzen dituzte, merkeak diren tokietara jende gaztea joaten da, eta, gainera, ba, eskuetan jartzen dizkiete horrelako gauzak, ezta? Eta, bueno, ba, kritika bat litzateke; hain zuzen ere, arriskutsua delako ouija taula hori erabiltzea. Eta, orain, ouijak izan dezakeen beste ondorio bati buruz hitz egingo dugu. Izan ere, orain arte ondorio psikologikoak nolabait aipatu ditugu, baina, orain, ondorio paranormalak aipatuko ditugu, "poltergeist" izenekoak.

XABIER: Poltergeist? Hori film baten izena ere bazen.

MAIDER: Bai, film baten izena zen, eta gogoratuko duzue film horretan, etxe madarikatu horretan, nola ateak zabaldu eta itxi egiten ziren, leihoak ere bai, argiak piztu eta itzali egiten ziren, kristalak apurtu, ispiluak paretatik jausi... Ba, hain zuzen ere, guzti horiek poltergeistak dira, hau da, inolako arrazoi logikorik gabe gertatzen diren mugimenduak edo desplazamenduak, ezta? Ba, ouija sesio (saio) baten ondorioetako bat, gezurra badirudi ere, poltergeistak izan daitezke. Entzun dezagun zer dioen Jose Manuelek.

JOSE MANUEL DURAN: Ouija esperientzia baten ondoren sortu diren poltergeist ugari ikertu ditugu. Gerta daiteke etxean esperientziaren bat egin, ezer berezirik ez gertatu, neska-mutilak etxetik joan, eta handik bi hilabetera fenomenoak hastea. Baliteke pubertaroa izatea, edo tratu txarrak, edo depresioa. Horrek guztiak poltergeista sor dezake. Izpirituak direla eman dezake, baina arimen arazoa da, edo buruak kontrolatu ezin duen arazo paranormala, hau da, nahaste-borraste paranormal ikaragarria.

MAIDER: Tira, ba, badirudi poltergeist horien jatorria zein den ere oso argi ez dagoela, baina giza adimenak ere sortu ditzake horrelako mugimendu arraroak, ezta? Eta, bueno, badakigu giza adimenak, beti esan ei da, ezta? ...giza adimenaren %20 baino ez dugula erabiltzen. Agian, beste %80 hori sartzen da jokoan horrelako gauzak gertatzen direnean, ezta?